

Elkarrizketa  
politikoak

MANKOMUNITATEA



## "Lanpostu bi egonkortu eta hirugarren bat sortuko dugu, gizarte langileen lan karga arintzeko"

**Durangaldea** • EH Bilduk Mankomunitateko gobernua berreskuratuta, Idoia Otaduy berriztarra izendatu dute erakunde honetako presidente. Gizarte zerbitzuak indartzeari lehentasuna eman diotela azpimarratu du. • **2-3**

## "Hau da aurtengo Bizkaiko sagardoa!"



Bizkaiko sagardogileek denboraldi berria inauguratu dute Zornotza Uxarte sagardotegian. Itziar Lazkano aktore eta antzerki zuzendari bilbotarrak eman dio hasiera denboraldi berriari. Sagardo "arina, orekatua eta egitura handikoa" da aurtengoa. 100.000 litro ekoiztu dituzte, Bizkaiko sagarra bakarrik erabilia. • **5**

## Argiñola, energia eta komunitatea sortu guran Elorrion



**Elorrion** • Trantsizio ekologikorako bidean, Argiñola Energia Berriztagarrien Komunitatea sortu zuten orain ia urtebete Elorrion. Energia herriari sortzea dute helburu bertako kideek. • **6**

## San Blas gehigarria



## Latxaberrik txahal okela salduko du sanblasetan, lehenengoz

**San Blas** • Ibon Lasuenek eta Esther Ugaldeak okela etxerik etxe saltzeari ekin zioten 2019an. Abadiñoko Gaztelua auzoan hazten dituzte txahalak. Aurten, bezeroengandik gertu egoteko asmoz, euren postua ipiniko dute sanblasetako ferrian. • **13-17**



**Idoia Otaduy  
Uriarte**

**Mankomunitateko  
presidentea**

**BERRIZ | 1975**

## “Gizarte zerbitzuak indartzea izango da gure lehentasun nagusia”

Mankomunitateko gizarte zerbitzuetan "aldaketa estrukturalak" egiteko asmoa dutela azaldu du Otaduyk

**DURANGALDEA • JONE GUENETXEA**

Mankomunitatearen gidaritzari helduta ekin dio bere ibilbide politikoari. Idoia Otaduy berriztarrak bere herriko zinegotzi kargua hartu zuen ekainean. Urrian, ostera, Mankomunitateko presidente izendatu zuten. Mankomunitateak arlo anitz batzen du: gizarte zerbitzuak, zabor bilketa, kirol instalazioak, enpresen jarduna, Kontsumitzaile Bulegoa, Droga-mendekotasun Saila... Horiei guztiei buruz berba egin du Otaduyk.

**Zelan kargu berrian?**

Aspertzeko astirik barik, neure saltsan. Ezagutzen nautenek badakite geldirik egoten ez den horietakoa naizela. Gogotsu heldu

diot erronka berri honi eta neure onena emango dut proiektu hau aurrera ateratzeko. Nabarmendu gura nuke nire ondoan dudan lantaldearen babesa; politika munduan berria izanik, eskertze-koa da.

**Zeintzuk dira aurrekontuetan aurreikusitako inbertsio nagusiak?**

Gizarte zerbitzuak indartzea izango da gure lehentasun nagusia, beharizanik handiena dutenek zerbitzu duinak jasotzen dituztela bermatzeko eta herritarren bizi kalitatea hobetzeko. Horretarako, aldaketa estrukturalak egingo ditugu, eta, proiektu ikusgarriei begiratu barik, lanpostu bi egonkortu eta hirugarren bat sortuko

dugu, gizarte langileen lan karga arintzeko eta herritarrentzat zerbitzu duina bermatzeko. Horrez gainera, hondakinak batzeko kamioi berri bi erostea aurreikusten dugu, baina inbertsio hau ez dago aurrekontuetan, eta soberakinetik egiteko asmoa dugu.

**Eta legegintzaldian zer indartu gura duzue Mankomunitatean?**

Garrantzitsua da, aurrera begira jarri aurretik, oraina ordenatzea, eta, alde horretatik, lan handia dugu egiteko oraindino, hainbat

**Belodromoa eraberritzeko aurreproiektua egiten gabilta. Eskualdeko alkateekin partekatzea izango da lehenengo pausoa**

gauza dugulako ordenatzeko eta antolatzeko. Aurrekontuak onartu berri ditugu eta hurrengo hileetarako proiektu eta erronka mardulak ditugu esku artean.

**Berriz Mankomunitatean sartzera-koan, gizarte zerbitzuak batu dira herri horretan. Izan du eraginik?**

Berriztarra naiz eta oso ondo ezagutzen dut prozesua. Garai

hartan ez nintzen zinegotzia eta ez nengoen EH Bildura lotuta, eta, kanpotik ikusita, prozesu guztia presaka egin zela iruditu zitzaidan, dekretuz eta ezelako eztabaidarik barik.

Horrek ondorio batzuk izan ditu Berrizko gizarte zerbitzuetan, eta baita gainerako herrietako gizarte zerbitzuetan ere. Orain, Mankomunitateko presidente legez, apurka-apurka gizarte zerbitzuak indartzeko lanean aritzea tokatzen zaigu, bai Berrizen eta baita Durangalde osoan ere.

**Aurreko gobernuak Elkartegia erosteko asmoa plazaratu zuen. Zertan da gai hori?**

Halaxe da. Elkartegian zerbitzu guztiak zentralizatzearen aldekoa naiz. Jada mahai gainean ipini dugu gaia eta zerbitzu guztiak bermatuko direla ziurtatu behar dugu, hurrengo pausoa eman aurretik. Iruditzen zait asmoetatik ekintzetara igaro behar dugula. Elkartegia erostek Mankomunitateko zerbitzu guztiak zentralizatzea suposatuko luke, eta horixe da neurtzen gabiltzana. Ea zerbitzu guztiak hemen kabitzen diren.

**Non ikusten dituzue gabeziak? Eta indarguneak?**

Gabeziak baino gehiago, ahuleziak direla esango nuke. Man-

komunitateak izan ditzakeen ahulezien artean, administrazio publikoak tramiteak garatzeko batzuetan duen erritmo motela aipatuko nuke. Gure kasuan, beharizanik handiena dutenentzat lan egiten dugu, eta erritmo motel horrek eragin zuzena izan dezake pertsona horien bizimoduan.

Indargune legez, Mankomunitateak lantalde ikaragarria daukala aipatu gura nuke. Ordezkaritza politikoak bagatoz eta bagoaz,

**Lanpostu bi egonkortu eta hirugarren bat sortuko dugu, gizarte langileen lan karga arintzeko eta herritarrentzat zerbitzu duina bermatzeko**

baina hemengo langileek ateratzen dituzte aurrera proiektu horiek, gure erabakien bitartez. Eta, beraz, ezinbestekoa da euren lana goraiatzeko.

**Mankomunitateak zein zerbitzu eskaintzen die neguan etxebakoei?**

Ibaizabal Ikastola Kooperatiban 10 plaza eskaintzen zaizkie gaueko zerbitzuan, abendutik mar-

txora bitartean: ostatua, afari eta gosari otorduak, higienarako paketea, arropa garbiketa eta larrialdietarakoak. Gainerako hileetan zehar beste bost plaza eskaintzen ditugu. Oraindino asko dago egiteko, baina gutxienez hamar pertsona horiek teilatua daukate eta inklusio prozesu bat hasi dezakete.

#### Zertan da Berrizko belodromoaren gaia?

Berrizko belodromoa eraberritzeko aurreproiektua egiten gabiltza oraingoan. Esku artean dugunean, eskualdeko alkateei jakinaraztea izango da lehenengo urratsa, eta, iritziak partekatu ondoren, behin betiko erabakiak hartzea izango da hurrengoa.

#### Mankomunitatearen beste lan ildo garrantzitsuenetarikoa bat zabor bilketarena da. Zeintzuk dira erronkak?

Zabor bilketarako kamioiak erostez gainera, hondakin organikoaren kanpaina bat egin gura genuke, gai horri beste bultzadaxo bat emateko. Erakundeetatik lan handia dugu aurretik birziklapenaren aldeko kontzientziaziarioari dagokionez.

#### Zelan ikusten duzue Durangaldeko herrien kohesioa?

Udalen arteko hartu-emana ona dela esango nuke, eta Mankomunitateak ere etenik bako hartu-emana du udalekin. Horrela

izan behar dela uste dugu, eta iruditzen zait Mankomunitatea oso tresna baliagarria izan daitekeela helburu hori lortzeko.

**Zabor bilketarako kamioiak erostez gainera, hondakin organikoaren kanpaina bat egin gura genuke, gai horri beste bultzadaxo bat emateko**

**Landue programaren bitartez, eskualdeko enpresetan lan bikaina egiten dabilta euskara sustatu eta erabili ahal izateko**

#### Droga-mendekotasun Sailari dagokionez, zelan baloratzen duzue arlo honetan egiten den lana?

Prebentzio zerbitzutik egiten den lana beharrezkoa dela iruditzen zait. Oinarri-oinarrian, dependentzia guztiak emozioen gestioekin daude lotuta. Horregaitik, mendekotasun horiek ekiditeko, gure



eskualdeko haur eta gazteekin egiten den lana nabarmendu gura nuke.

#### Eta kontsumitzaile bulegoarena?

Egonkortuta dagoen zerbitzua da. Herritarrek oso ondo baloratzen dute Kontsumo Bulegoan egiten den lana. Urte batzuetan, Bizkaian izapiderik gehien egin duen bulegoa izan da, eta horrek zerbitzuaren kalitatea erakusten duela uste dut.

#### DEK Durangaldea enpresa ekimena ere martxan da. Zelan doa proiektua?

Gobernu aldaketagaz, DEK-en ere presidentzia aldaketa egon da, eta, beraz, datozen hileetan erabaki beharko dugu zein izango den DEK-en norabidea eta eman beharreko pausoak.

#### Enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko ekimena ere martxan ipini duzue. Zein emaitza izaten ari da?

Bai, dagoeneko martxan da. Landue programaren bitartez, eskualdeko enpresetan lan bikaina egiten dabilta euskara sustatu eta erabili ahal izateko. Oraingoan, 26 enpresa daude atxikita Landuen, eta urte honetan beste 20 bat enpresa atxikitzea aurreikusten dugu. Euskarari behar eta merezi duen garrantzia eman behar zaio- la iruditzen zait, eta enpresagintzan ere bere lekua behar du.



# Okm: batzen gaituen distantzia

Egin zaitez anbotokide!

30€  
urtean!

abantaila  
guztiak  
hemen >



**anboto**  
kide



Durangoko Udalak, kirol elkarteek eta Kunina aholkularitza zentroak bat egin dute egitasmoagaz.

## Lankidetzaz Durangon, umeen kirola indarkeriarik bako eremu izan dadin

Durangoko Udalak, herriko kirol elkarteek eta Kunina aholkularitza zentroak lankidetzaz hasi dute umeei kirol arloan jasan ditzaketen indarkeriazko jarrerari aurre egiteko

### DURANGO • EKAITZ HERRERA

Joan zen astean ipini zuten ibilbideko lehenengo harria, baina hamar hilabeteren buruan, etorkizunean gerta litezkeen indarkeriazko jarrerak prebenitzeko, identifikatzeko eta saihesteko tresnak zehaztuta eduki gura dituzte. Egitasmo berria da Durangon, herriko kirol elkarteek, kiroldegietako arduradunen eta udalaren lankidetzaz garatuko dena. Eta horiek guztiek koordinatzaile bat izango dute bidelagun: Iñaki Alonso, kirol arloan umeen eskubideak babesteko aholkularitza zerbitzua eskaintzen duen Kunina zentroko aditua. "Umeei kirola indarkeriarik bako eremuetan egiteko eskubidea dute. Azken finean, gaur egun kirol arloan nagusi den indarkeriazko kultura da aldatu behar duguna. Badira begien aurrean dauden indarkeria motak, ikusgai daudenak, baina badira ikusezinak diren edo ezkutatu egiten diren indarkeriak. Insti-

tuzioak, klubak, federazioak, taldeak, monitoreak, helduak, gurasoak... bakoitzak dagokion zatia bere egin behar du", azaldu du Alonsok.

Plan honen garapenak 10 hilabeteko iraupena izango du eta hainbat helburu betetzea du xede: "Funtsean, hiru dira egin beharreko lanak. Batetik, arriskuaren analisi bat egin behar dugu. Badira arruntak ez diren baina normaltzat jotzen ditugun jarre-ak. Beste lan bat helduen formakuntza da. Helduei indarkeria horiek identifikatzeko eta kudeatzeko tresnarik ematen ez bazaie, beti egongo dira arriskuak. Azkenik, jokabide protokoloak egiteko lana dago", azaldu du Alonsok.

### Herriko elkarteek inplikazioa

Hauek dira egitasmoagaz bat egin duten kirol elkarteetarikoz batzuk: Uztai gimnastika erritmiko taldea, Tabirako saskibaloia elkarteak, Mugarra triatloi taldea, Bidezabal atletismo taldea eta

Kulturala. Amaia Frontaurak, adibidez, indarkeriaren preben-  
tziorako protokoloa kudeatzen du Tabirako saskibaloia taldearentzat. "Adintxikikoei begirako protokolo bat barik, helduei begirako protokolo propioa egin dugu orain arte. Inportantea da protokoloak

**"Azken finean, gaur egun kirol arloan nagusi den indarkeriazko joera da aldatu behar duguna"**

daudela gizarteratzea. Azken finean, kirolarien kontrako abusu sexualak errotik mozteko lan egin behar dugu. Praktika onak, osasuna eta ongizatea sustatzea dagokigu", esan du Frontaurak. Jessica Ruiz alkateordeak "funtsezkotzat" jo du egitasmo berria, eta gaineratu du Durangoko Udalak "konpromiso irmoa" duela umeei babesteko programa honegatzat.

## Psikobonuen kanpaina bueltan da 14tik 35 urtera bitarteko gazteentzat

Kanpainaren epealdia sei hilabetetik urte osora zabaltzea erabaki du Durangoko Udalak. Txartelak salgai daude

### DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko Udalak psikobonuen kanpaina berria hasi du. 14tik 35 urtera bitarteko durangarrek zabalik dute txartelak erosteko aukera. Turismo Bulegoan, HAZen eta [bonoa.durango.eus](http://bonoa.durango.eus) atarian daude eskuragarri. Saio bakoitzaren kostua 50 euroan definitu dute. Horrenbestez, psikobonua erabiltzen duten gazteek bost euro baino ez dute

ordaindu beharko. Gainerako 45 euroak udalak ipiniko ditu. Gazte bakoitzak 10 bonu erosi ditzake gehienez. Edozelan ere, bonuak "arduraz eta enpatiaz" erabiltzera deitu du udalak, "ez baitago horiek agortzeko arriskurik". Kanpaina sei hilabeteko iraupenetik urte osoko epealdira zabaltu dute. Gobernu taldeak "lehenasuntzat" jo ditu osasuna eta ongizatea.



Durangoko Udalak "lehenasuntzat" jo du herritarren osasuna eta ongizatea zaintzea.

## Tren geltokiko lurretan "legez kanpoko obrak" egin direla dio Herriaren Eskubideak

### DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko jaien atarian, udalak hainbat lan egin zuen tren geltokiko orubean, hango lurzorua egokitu eta bertan barrakak instalatu ahal izateko. Orain, Herriaren Eskubideak kexa agertu du, lanok "legez kanpokoak" izan zirela iritzita. Alderdi independenteak adierazi duenez, obra haiek "Euskal Autonomia Erkidegoko lurzorua legea urratzen dute. Ez dute betetzen lurren behin-behineko erabile-

rari loturiko atalean zehazten dena". Horrez gainera, Jorge Varela bozeramaileak esan duenez, udalak ez zuen ezelako hitzarmenik sinatu ETSgaz, lurrak erabili ahal izateko. Bozeramailearen iritziz, "EAJk eta PSE-EEk euren alderdi interesak lehenetsi gura izan dituzte berriro ere, legeak urratuz eta herritarrentzako ondorioak kontuan hartu barik". Gobernu taldeak obra horietan "50.000 euro gastatu" zituela gaineratu du.

**anboto**

Gertuko Koop S.,  
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902

2024ko urtarrilaren 26a  
22. urtea - 965. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Itziar Lazkano aktoreak izan du denboraldi berria zabaltzeko ohorea, sagardogileak eta ordezkari politikoak lagun.

## Kupelak beteta, martxan da Bizkaiko sagardoaren denboraldi berria

Uxarten egin dute aurkezpena. Itziar Lazkano aktore bizkaitarra izan da aurtengo enbaxadorea. Ekoizleek 100.000 litro egin dituzte, Bizkaiko sagarra bakarrik erabiltuta

**ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA**

Hasi da sagardo denboraldi berria. Bizkaiko sagardogileak Zornotzako Uxarten batu ziren martitzenean, iazko uztak utzitako edaria aurkezteko. Kiri-koketa saio batez hasi zuten aurkezpen ekitaldia, eta aurtengo sagardoa deskribatzeari ekin zioten gero. Jose Antonio Zamalloa, Uxarte sagardotegiko arduraduna izateaz gainera, Bizkaiko sagardogileen elkarreko presidentea ere bada. Bere esanetan, "orain arteko sagardorik onenetariko" ondu dute ekoizleek. "Nahiko sagardo arina da aurtengoa, egitura handikoa, orekatua, freskoa", azaldu zuen. Bizkaiko sagardogileek 100.000 litro ekoiztu dituzte. Lurralde historikoko sagarra baino ez dute erabili zeregin horretarako.

Hori bai, Zamalloak onartu du estuasunak ere izan dituztela. Ekoizleek sagar barietaterik goiztiarrenak galdu dituzte. "Sagar uztak oso ona zirudien hasieran, sagastiak loraldi betean

**"Egin dugun sagardorik onenetariko da: arina, egitura handikoa, orekatua eta freskoa"**

genituen, udaberria oso ondo joan zen, eta uda ere ondo. Baina sagarra batzeko garaian alarma bat isiotu zitzaigun. Sagar barietaterik goiztiarrenak lurrera jausten hasi ziren. Asko. Sagarrari erasaten dion zomorrotariko batek normalean baino gehiago

eragin du. Horrek esan gura du uztaren %20-30 galdu genuela", azaldu du. Sagar txarra kenduta, onenagaz bakarrik egin dute sagardoa, primerakoa. "Urterik onenetariko bat izan da", Zamalloaren berbetan.

Bestalde, sagasti kopurua handitzeko eskatu die instituzioei: "Hektarea kopurua handitu behar dugu. Gure baserriek horretarako beharrezkoak dira". Aurkezpen ekitaldian, Zornotzako alkate Ainhoa Salterainek, Arantza Atutxa Ingurumen eta Nekazaritza foru diputatuak eta Nekazaritza eta Arrantza sailburuorde Bittor Orozek parte hartu dute. Atutxak aitortza egin dio sagardogileen lanari. Orozek Bizkaiko sagardogileek bertako sagarragaz lan egiteko apustua goraiatu du.



Itziar Lazkano aktorea, Uxarten.

## "Sagardotegira joatea egundoko plana da, astebururako ezin hobea"

**ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA**

Itziar Lazkano aktore eta antzerki zuzendari bilbotarra da Bizkaiko sagardoaren aurtengo enbaxadorea. "Harrotasun eta ohore handiagaz" hartu du denboraldia zabaltzeko ardura.

Gainera, konbinazio ona egiten du hemengo jeneroagaz. Bakailao hori... umm! Itzela da. Bai, bai. Tarteka gustatzen zait sagardotegiren bat bisitatzea. Gainera, orain kaleratu berri duten sagardo aparduna ere mundiala da!

**Zelan jaso zenuen sagardo denboraldia zabaltzeko proposamena?**

Sorpresa handiagaz. Sagardogileen elkartetik deitu zidatenean, "Ai ama! Hau da hau ilusioa!", pentsatu nuen. Nire lurraldeak emandako beste opari bat da hau. Proposamena lan karga handia daukadan sasoi batean ailegatu zait. Baina lortu dut denboraldia zabaltzeko ekitaldirako tarte bat egin eta Zornotzara etortzea. Ilusio handia egiten dit. Harrotasun handiz bizi ditut horrelako egitasmoak.

**Aurkezpen ekitaldian argi utzi duzu oso sagardozalea zarela.**

Bai, bai, oso sagardozalea naiz. Edari zapoetsua da, usain handikoa. Eta alkohol kantitate txikia duenez, hiru-lau basoerdiz gozatzeko aukera ematen dizu.

**Oso sagardozalea naiz. Edari zapoetsua da, eta alkohol gutxi duenez hiru-lau basoerdi hartu ditzakezu**

**Enbaxadore lanetan ipiniko zaitut. Zelan gonbidatuko ditugu irakurleak sagardotegira joatera?**

Sagardotegira joatea egundoko plana da, astebururako apropos-aproposa. Gainera, kontuan hartu sagardotegiak baserri eremu zoragarrietan egoten direla. Bapo bazkaldu ondoren, paseo lasaigarri bat egin dezakezu. Plan ezin hobea da.

## Azterlana egingo dute Zornotzako tren pasabideei konponbide bat emateko



Alicia Hernandez, Iñaki Arriola eta Ainhoa Salterain Eusko Jaurlaritzaren egoitzan.

**ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA**

Ainhoa Salterain alkatea eta Alicia Hernandez zinegotzi sozialista Iñaki Arriola Garraio sailburuagaz eta Pedro Marco Azpiegitura eta Garraioetako sailburuordeagaz batu dira Gasteizen, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan. Alde bietako ordezkariak bat etorri dira Gudari eta San Pedro kaleetatik igarotzen diren trenbide pasabideei konponbide bat eman behar zaiela iritzita. Azterlan bat egitea adostu dute, eta hauxe izango da helburua: "Hirigunean trenbidea integratzea, batez ere". Eusko Jaurlaritzako eta Zornotzako Udaleko iturriek azaldu dute "erronka konplexua" izango dela, baina onartu dute "premiatzeko" dela "ingurumen alderdiak bateratuko dituen konponbideari heltzea".

## Hitanoa ikasteko eta praktikatzeko deialdia egin dute Zornotzan

**ZORNOTZA • E.H.**

Zornotzako Udalak hitanoa praktikatzera deitu ditu herritarrak. Proiektua 2022an hasi zuten, herritar batzuek eskatuta. 2022-2023an talde bi sortu ziren, eurentariko bat beren-beregi noka lantzeko. Gaur egun, 24 lagunez osaturiko talde mistoa dago martxan. Hilean saio bi egiten dituzte, teorikoa bata eta praktikoa bestea, azken hori eguenetako pintxo-potean. Informazio gehiagorako, udaleko Euskara Zerbitzura jo daiteke (946 300 002).

## “Herri barruan ahalik eta energiari gehien sortzea izango da Argiñolaren helburua”

Argiñolako Energia Berriztagarrien Komunitateak instalazioak ipini eta gida plana egin gura dute



Mikel Irizar, Izei Martinez eta Carmen Intxausti Elorrioko plazan duten bulegoaren aurrean.

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

**Orain urtebete baino gutxiago sortu zuten Argiñola Energia Berriztagarrien Komunitatea, Elorrioren. Hilabete gutxian pauso garrantzitsuak eman dituzte.**

**Zein asmoz sortu zenuten Argiñola?**

**Mikel Irizar:** Energia-komunitate hau Europako zuzenbide batetik dator. Trantsizio ekologikoa egiteko, Europak tresna garrantzitsutzat jotzen du herririk herriko komunitateak antolatzea, energiaren produkzioan eta kontsumoan

ardurak hartzeko. Modu ardurtsuan kontsumitzea da lehenengo ardura; hau da, aurreztea. Izan ere, kilowatt ekologikoa kontsumitzen ez dena da. Bigarren ardura da behar dugun energia hori izan dadila iturri berriztagarrikoa, eta ahal bada bertan ekoizturikoa eta irizpide komunitarioekin. Argiñola bide horretatik doa eta urratsak ematen dabil.

**Carmen Intxausti:** Eta, zergaitik sortu genuen? Bada, azken batean, pausoak ematea eta trantsizio ekologikorako bidean joatea errazagoa

delako komunitatean egiten bada. Aldaketak taldean egiten badira, herri mailan, onura hobeak lortu daitezke banaka eginda baino.

**M.I.:** Hor kontsumo partekatuaren ideia dago. Energia berriztagarriak naturagazko dependentzia du, ordu batzuetan produzitzen da baina behar bada beste batzuetan kontsumituko da. Orduan, hori norberak

**Energia-komunitate batek energia sortu behar du alde batetik, eta komunitatea bestetik**

bateratzea, bere instalazioa eta bere produkzioa, gaxtagoa izaten da. Taldean eginez gero, instalazio bati kontsumo diferenteetako erabiltzaileak lotzen zaizkio.

**Zelako erantzuna izan du Argiñolak herrian?**

**C.I.:** Gaur egun 60 bat kide gaude, baina hasi baino ez gara egin eta ez dugu instalaziorik. Behin instalazioekin hasten garenean, jende gehiago batuko dela imajinatzen dut.

**M.I.:** Herri batzuetan, komunitate batzuk instalazio baten inguruan sortzen dituzte. Gure bidea zabalagoa izan da. Energia-komunitate batek gauza bi sortu behar ditu:

energia alde batetik, eta komunitatea bestetik. Neurri handi batean, gu hasita gaude komunitatea antolatu eta zerbitzu batzuk ematen. Gero, instalazioak etorriko dira. Gainera, aurten lanketa berezi bat egingo dugu: trantsizio energetiko hori Elorrioren zer izango litzatekeen zehaztea eta gida plan bat egitea.

**C.I.:** Ahal den neurrian, herri barruan ahalik eta energiari gehien sortzea izango da Argiñolaren helburu nagusia.

**Etorkizun hurbil batean, aurreikusten duzue instalaziorik?**

**C.I.:** Proiektu bi ditugu esku artean, herriko ikastetxe bigaz lotuta. Ikastetxe bi hauetan instalazio bana ipintzeko lanean gabilta, eta instalazio bi horiek aurten eginda egotea espero dugu.

**Lokal bat ere zabaldu duzue. Zer egiten duzue bertan?**

**Izei Martinez:** Herritarrei fakturen inguruko azalpena ematen diegu. Jendeak ez ditu fakturak ulertzen, zenbatekoari baino ez dio begiratzten. Eta guk fakturak aztertzen ditugu herritarrekin, zer kobratzen dieten erakusten diegu, batez ere. Doako zerbitzua da, udalagaz eginiko hitzarmenaren barruan jasotzen dena.

**M.I.:** Horretan gabilta gaur egun, baina apurka-apurka Argiñolaren inguruko kontu gehiago ere azaltzen gabilta. Eta gure instalazioen berri ere emango dugu. Aipatu behar dugu Argiñolak herri mailako dimentsioa duela gaur egun, baina eskualdera ere zabaldu daiteke.

**C.I.:** Eskualdean ere berdin gertatzen da. Gauzak komunitatean egitea askoz ere errazagoa da.

## Batzarrak herriko enpresen beharrianak ezagutzeko

**ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Atxondoko Udalak prentsa ohar bidez jakinarazi duenez, bilera txanda bat egiten hasi da herriko enpresen, denden eta ostalarien beharrianak ezagutzeko. Herriko lantegirik handienekin hasi dituzte batzarrak, Artia industrialdeko lantokirik handienekin: Cemos, Hirumet eta Draxton enpresetako ordezkariekin. Udaletik azaldu dutenez, Artia inguruan daude enpresa-

**Herriko merkataritza eta ostalaritza arloan ere zein egoera bizi duten aztertuko du udalak**

rik gehienak, eta industrialdean dituzten premiak ere aztertu gura dituzte.

Bestalde, herriko merkataritza eta ostalaritza arloan ere zein egoera bizi duten eta Atxondoko Udalaren aldetik zein laguntasun beharko luketen aztertuko dute. "Orain arte enprekin egin ditugun bilerekin oso hartu-eman ona izan dugu. Oraingoan, handienekin bildu gara, baina apurka-apurka gehiagok batzea da gure asmoa", azaldu du Eneritz Agirre Atxondoko alkateak.

## Elorrioren diru bilketa hasi dute Bedoia baserria eraberritzeko

Elorrioko Bedoia baserriak su hartu zuen urte amaieran. Bertako kideen lagunek hasi dute kanpaina. Kontu korrante zenbaki bat zabaldu dute dirua batzeko

**ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Iazko urte amaieran, abenduaren 29an hain zuzen ere, Elorrioren Zenita auzoko Bedoia baserriak su hartu zuen. Sutearen ondorioz, pertsona bat zauritu egin zen eta baserriak kalte material handiak izan zituen.

Orain, Bedoiako kideei baserria berreraikitzen laguntzeko asmoz, euren lagunek diru bilketa bat ipini dute martxan. Horretarako, kontu korrante bat zabaldu dute. Hauxe da zenbakia: ES33 3035 0003 46 0031121035. Horrez gainera, Bizum bidez (722 22 14 45) ere lagundu daitekeela azaldu dute Bedoia baserriko kideen lagunek.



Elorrioko Bedoia baserria.

## Sukaldaritza tailerreko izen ematea martxan Abadiñon

Hiru tailer emango dituzte Gaztañodi Elkarteak: gozogintza, Munduko Zaporeak eta Batch Cooking

**ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

Abadiñoko Udalak antolatzen dituen sukaldaritza tailerretarako izen emateak martxan dira dagoeneko. Udaletik jakinarazi dutenez, Abadiñoko Gaztañodi elkarteak hiru tailer hartuko ditu maiatzera bitartean. Lehenengoa gozogintzaren ingurukoa izango da, otsailean. Tailer honetan, errezeta tradizionalak aztertu eta aukera beganoak aurkituko dituzte.

Martxoan eta apirilean Munduko Zaporeak tailerra egingo dute. Honen helburua bost kontinentetako errezetarik ospetsuenak egitea izango da. Maiatzean, azken tailerrean, *Batch Cooking*-aren inguruan arituko

dira eta asteko janarien plangintzak egingo dituzte. Sukaldaritza tailer hauetan izena eman gura duenak urtarrilaren 31 baino lehenago egin beharko du. Mediatekan zein Errota Kultur Etxean

**Izen ematea urtarrilaren 31 baino lehenago egin beharko da, Mediatekan, Errotan edo webgunean**

apuntatu daiteke; baita [www.abadiño.org](http://www.abadiño.org) webgunean ere. Abadiñoko Udaletik azaldu dute plazak mugatuak direla. Plaza baino eskatzaile gehiago egonez gero, zozketa egingo dute.




# DURANGALDEKO

# IKERLARI

# GAZTEEN

# SARIKETA



## Baldintzak

- Bakarka zein taldeak
- Bi kategoria: 18 urtera arte eta 19tik 35 urtera arte
- Lanak euskaraz
- Artikulua, poster akademikoa, podcast zein ikus-entzunezkoa
- Edozein jakintza arloko ikerketa, Durangaldea azterlana izanda.

Lanak aurkezteko epea apirilaren 8an amaituko da

Informazio gehiago:



[www.gerediaga.eu](http://www.gerediaga.eu)

Sariak: **1000 euro eta 500 euro**

Antolatzailea:



Babeslea:



Durangaldeko  
Mankomunitatea  
Mancomunidad  
de Durangaldea

**OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO**

Otxandioko Udalak herri onurako basoekin zer egiteko asmoa duen jakiteko aukera izan zuten otxandiarrek eguazteneko herri batzarrean. Baso Plana diseinatu duten Lur Geroako kideek iaztik indarrean dagoen Baso Planaren nondik norakoak azaldu zituzten.

Lur Geroakoak 2018an hasi ziren lanean. Mendietako basoetara joan eta sailkatu egin zituzten, baso moten arabera, orokorrean egoera zein den ikusteko. Harrezkero, ez da alde bakarreko prozesua izan; herritarrekin prozesu parte hartzaile bat egin dute ekarpenak jasotzeko. Horiek guztiak kontuan hartuta osatu zuten Baso Plana, helburuak markatuz eta euretara heltzeko ekintza-plana proposatuz.

Planak hiru ardatz nagusitan eragin gura du: basogintzan, biodibertsitatean eta eurak gizarteratzeko ekintzetan. Basogintzaren arloan, Otxandio Bizkaiko batezbestekoaren gainetik dago bertoko basoen kopuruari dagokionez. Otxandioko herri onurako basoen %52an bertoko landaredia dago, eta Bizkaiko batezbestekoa %27koa da. Baina bide horretan sakontzen jarraituko dute. Epe ertainera begira, bertoko basoen azalera %50 gehitzea eta kanpokoak beste hainbeste gutxitzea da helburua.

Bertoko basoak handitzeko bidean, Planak ekintza zehatzak jasotzen ditu. Esaterako, Lawson altzifrez —kanpoko espeziea— bakarrik osaturiko baso bat baso misto bihurtzea, pago autoktonoagaz. Bizkaian "ez da existitzen" horrelako baso motarik, Lur Geroa enpresako

# Bizkaian nobedadea den baso mistoa sortzea da Otxandioko Baso Planean egingo duten ekimen bat

Datorren hamarkadan herri onurako basoekin zer eta zelan egingo den jasotzen du Planak; iaztik martxan da eta eguaztenean herri batzarrean aurkeztu zuten. Bertoko basoen azalera handitzea eta koniferoena gutxitzea da helburu bat



Lur Geroako kide bat Otxandioko pagadi bateko pagoak aztertzen. **LUR GEROA**

Nahia Agoteren esanetan. Baso hori dagoen eremuak 13 bat hektarea ditu eta herritik bertatik ikusten da. Eraldaketa "progresiboa" egitea proposatzen da, "apurka" eta hamarkada batzuen barruan, paisaia aldetik

inpaktu "txikia" izango duena, arraseko mozketak ekidinduz dituztelako. Eremu txikiak moztea da asmoa eta ez toki berean, basoko zenbait puntutan baino. Soilguneetan Lawson altzifrea erein eta pagoa

landatuko lukete. Gainera, mozketak horiek aldiro egin gura dituzte, zenbait urterik behin; horrela, adin desberdinetako zuhaitzak izango dituzte, baso irregularra deitzen dena. Hamarkada batzuen barruan,

aprobetxamendurako "kalitatezko" pagoa eta altzifrea lortzea espero dute, zonalde "emankorra" delako.

Baso Planeko beste ardatz bat bioaniztasuna eta gaia gizarteratzeari dira. Alderdi honetan, besteak beste, hainbat ikerketa egin gura dute. Esaterako, okil txoriaren gaineko bat, inguruotan zer okil mota dagoen eta basogintzak zelan eragi-

## Biodibertsitatearen inguruan, okilei eta saguzarrei buruzko ikerketak egin gura dituzte

ten dien jakiteko. Saguzarren gaineko beste ikerketa bat aurten bertan hastea aurreikusita dute eta aurrera begira saguzarrak ezagutzera emateko ekintzak antolatu gura dituzte herritarrekin. Hirugarren ikerketa bat intsektu saproxilikoei buruzkoa izango da; hau da, batik bat egur hilagaz elikatzen diren intsektuen gainekoa. Gehienbat pago motzak dauden inguruetan egoten dira eta basoen ekosisteman duten garrantziagaitik jakin gura dute gehiago euri buruz: zer espezie dagoen, zer egoeratan, eta abar.

## Valentziako, Errioxako eta Galiziako ikasleak Elise Ouvrier frantziarrak Izurtzan emango duen ikastaroan

Umore fisikoaren inguruko formakuntza emango du

**IZURTZA • J.D.**

Elise Ouvrier Buffet zinema irakasle eta zuzendari frantziarrak *slapstik* edo umore fisikoaren gaineko ikastaroa emango du otsailaren 12tik 15era Izurtzako Korrala sormen gunean. Ikasta-

roko hamabi plazak beterik daude eta beste hainbesteko itzarote zerrenda dute. Bost-sei lagun euskaldunak dira eta gainerakoak Portugaletik, Valentziatik, Errioxatik, Galiziatik eta Kataluniatik etorriko dira.



Elise Ouvrier Buffet antzerki zuzendaria.

## Internet bidezko erosketen gaineko berbaldia emango dute Mañarian

**MAÑARIA • J.D.**

Kontsumobide erakundeak Internet bidezko erosketen gaineko berbaldia emango du Mañarian. Otsailaren 8an izango da, 16:30ean, Ursula Donea elkartearen bitartez zelan erosi jakiteko azalpenak eman eta bertaraten direnen zalantzak argituko dituzte. Eusko Jaurlaritzari atxikitako Kontsumobide hainbat berbaldi ematen du herririk herri urtean zehar. Izan ere, helburu nagusietariko bat kontsumitzaileen ezagutza sustatzea da, prestakuntzaren eta informazioaren bitartez, eta herritarrek prestatzea kontsumo seguru, iraunkor eta arduratsu baterako.

## Eskubaloia gustuko duten mallabitarrei Ermuko taldera batzeko dei egin diete

2012an jaiotako mutil mallabitarrentzako deialdia da

**MALLABIA • J.D.**

Ermuan eskubaloian jokatzen jarraitzeko, hainbat familiak mutilen taldea sortu gura dute datorren denboraldirako. Dagoeneko badituzte mutil batzuk, baina gehiago behar dituzte. Horregaitik, Mallabiko

gazteei ere dei egin diete taldera batzeko. Hain zuzen ere, 2012an jaiotakoena bila dabilta. Euren lehenengo ekimena domekan da, Ermuko Betiondoko kantxan, 11:00etan. Interesa dutenek 639 414 205 telefonora deitu dezakete.



Interesa duena domekan Ermuan egingo duten ekimenera joan daiteke.



# BIZI TZEKO HEZI

KURUTZIAGA  
IKASTOLA 

**MATRIKULAZIO EPEA**  
otsailaren 7tik 23ra

**ATEAK ZABALIK  
JARDUNALDIA,**  
urtarrilaren 27an  
goizean zehar

**ESKAINNTZA:**  
0 urtetik 18 urtera bitarteko  
hezkuntza eskaintza

**HELBURUA:**  
Ikasle eleanitz, kritiko eta  
euskaldunak

**JANTOKIA:**  
Bertokoa, sasoikoa eta  
produktu ekologikoak



[www.kurutziagaikastola.eus](http://www.kurutziagaikastola.eus)





## Anbotokideen txokoa


### URTARRILEKO ZOZKETAK



**Ez gara jaitsiko! (Porrotx eta Marimotots)** umeen antzerkirako sarrera bikoitza. Otsailaren 9an, Zornotzan.



**GOIAZEN 9.0** kontzerturako sarrera bikoitza. Otsailaren 18an, Zornotzan.



**Xiberu tabernan** bi pertsonentzako gosaria. Zornotza.

\*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

### IRABAZLEAK

'Ali Baba eta 40 lapurrak' antzerkia: Igor Garalde  
'Moor Krad' ikuskizuna: Ainhoa Diez  
'Zeozertan dabil baina ez dakit zertan' antzerkia: Bittor Amezua  
Lezaun upategira bisita: Iker Padilla  
BBK Karpin Fauna: Leire Marimon eta Olaia Orbegozo

**Okm:**  
batzen gaituen distantzia

Egin zaitez Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan!



## Erregela parekideak dantzatu dituzte San Antonio jaietan

San Lorentzo eta Iremiñe taldeetako kide banak dantza egin dute; astelehenean amaitu ziren San Antonio jaiak

**BERRIZ • A. M.**

Aste honetan amaitu dira Berrizko San Antonio jaiak, astelehenean, hain zuzen ere. Aurtengo festak nekazaritza olinpiadekin borobildu dituzte. Ohikoa den moduan, Olakueta frontoiko harmailak beterik egon ziren lehia-kideak ikusi eta giroaz gozatzeko; berezitasun lez, taldeetarikoa bat Berrizko aterpetxean bizi diren errefuxiatu palestinarrek osaturikoa zen. Bestalde, domekan, lehenengoz erregela parekideak dantzatu zituzten Berrizko San Antonio jaietan. San Lorentzo

taldeko Arhane Areitioaurtena Mardarasek (2011) aureskua egin zuen, eta Iremiñe taldeko June Urbietta Lauzirikak (2008) atzeskua; dantzari biak Biak Bat klube-kideak ere badira. Bestalde, Hiltegixe gaztetxean ere egon ziren emanaldiak. Barikuan, Fito Skins talde elorriarrak kontzertua eman zuen, eta zapatuan The Riff Truckers eta Lumatzak musika jartzaileak aritu ziren. Zapatuan, Bones of Minerva taldeak kontzertua eman zuen Kultur Etxean. Hotz egin arren, giro paregabea ospatu dituzte jaiak Berrizen.



Domekan izan ziren dantzak.

## Irakurketa sustatzeko helburua duen Berrizko Kontulekuak programa, martxan

**BERRIZ • A. M.**

Haurren irakurketa sustatzeko helburua duen Berrizko Kontulekuak programa martxan da. Haurren literaturagaz eta kontakizunekin gozatzear gainera, guraso eta umeen arteko lotura afektiboak sortzeko, irakurketa ohiturak sustatzeko eta gurasoei baliabideak eskaintzeko asmoa du egitasmoak. Amaia Egidazu idazle eta ilustratzaile berriztarrak dinamizatuko ditu saioak. Lehenengo saioa eguaztenean izan

**Hurrengo saioak otsailen, martxoan eta apirilean izango dira; Amaia Egidazuk dinamizatuko ditu**

zen, eta hurrengoak otsailaren 21ean, martxoaren 20an eta apirilaren 24an izango dira; 45 minutuko saioak izango dira, eta 3tik 5 urtera eta 6tik 8 urtera arteko umeen artean egingo dira. Plazak mugatuak dira eta parte hartzaileek izena eman beharko dute (antolatzaileen esanetan, umeek heldu batek lagunduta joan beharko dute); horretarako, [liburutegi@berriz.eus](mailto:liburutegi@berriz.eus) helbidera idatzi behar da.

## Zaldibarko 2024ko jaiak antolatzeko, jai batzordearen bilerara deitu dute urtarrilaren 29rako

Batzarra pleno aretoan egingo dute eta udalak herritar zein elkarteak deitu dituzte parte hartzera



Zaldibarko iazko jaien hasierako argazkia.

**ZALDIBAR • JONE GUENETKEA**

Dagoeneko hasi dira motorrak berotzen Zaldibarko jaiak antolatzeko. Horretarako, udalak deialdia egin du jai batzordea biltzeko. Hitzordua urtarrilaren 29an izango da, 18:30ean, udaletxeko pleno aretoan. Zeregin horretan, taldeen, elkarten, herritarren zein gura duten herritar guztien laguntasuna izan gura duela azaldu du udalak.

Era berean, elkarte eta kua-drillen partaidetza errazteko, bakoitzak bozeramaile bat izendatzea gomendatu dute, pertsona horrek taldearen proposamenak azaltzeko. Horrela, herritar guztiek lekua izatea bermatu gura du udalak. Gainera, batzar biziagoak egiteko aukera izango dute.

# Bizi berri bat XIX. mende amaieran Paristik Garaiko elizetara heldu zen harmoniumarentzat

Garaiko Udalak herriko eliza bietako liturgietan erabili izan den harmoniuma zaharberitu du. Antton Mari Aldekoa-Otalorak urte askoan jotako musika tresna da. Iñigo Alberdik San Anton eguneko mezan izan zuen harmoniuma jotzeko plazera

**GARAI • EKAITZ HERRERA**

Tenplu kristauetako organo ikusgarrien inbidiarik barik, Garaiko, bere txikian, badu elizkizunak girotu ahal izateko altxor txiki bat. XIX. mende amaierako harmoniuma da, tamaina txikikoa, sotila. Eta, adituen esanetan, oso kalitate onekoa. Musika tresna isilik egon da azken urteotan, mutu. Baina Garaiko Udalak bultzaturiko zaharberitze lanen ondoren, San Anton egunean berriro ere aterazi zioten doinua. Meza hark irudi polita utzi zuen, erremataren aurreko elizkizun berean batu ziren-eta Antton Mari Aldekoa-Otalora, zaharberitu aurretik harmoniuma seguruenik azkenengoz jo zuena, eta Iñigo Alberdi, instrumentua zaharberitu eta gero San Anton eguneko mezan harmoniuma lehenengoz jo zuena. Biak ala biak pozarren zeuden esku artean



Iñigo Alberdi eta Antton Mari Aldekoa-Otalora Garaiko harmonium zaharberituaren aurrean, San Anton egunean.

**Serie zenbakiagaitik dakigu 1885ekoa edo 1886koa dela, Parisko Christophe & Étienne etxeak eginikoa**

IÑIGO ALBERDI

musika tresna izanda.

Iñigo Alberdi Bilboko Koral Elkarteko kudeatzailea eta Musikeneko irakaslea da. Bere esanetan, XIX. mende amaieran egiten ziren harmoniumen artean "ohikoa" da Garaikoa. "Musika tresnak daukan serie zenbakiagaitik dakigu 1885ekoa edo 1886koa dela, Parisko Christophe & Étienne etxeak eginikoa. Sasoi hura erromantizismoaren aroa zen eta une hartan frantziarrak izan ziren famatuena harmoniumak zein organoak egiten", azaldu du Alberdik. "Harmoniuma txikia da, dotorea, erregistro bakarre-

koa, baina oso kalitate onekoa. Gainera, oso aproposa da Garaiko elizek duten tamaina soinuaz betetzeko", gaineratu du. Antton Mari Aldekoa-Otalora ere iritzi berekoa da: "Askotan diot besapean eramateko moduko harmoniuma dela. Txikia, baina elizkizunak betetzeko primerakoa". Aldekoa-Otalorak hamabi bat urte zituela ezagutu zuen Garaiko harmoniuma. Baina ez Elizabarrin, aurtan San Anton eguneko mezan ikusi eta entzun ahal izan den

moduan, "San Migel elizan baino". Iurretarrak sarri jo du harmoniuma liturgiak gidatzeko. "1962. urte inguruan ezagutu nuenetik gaurdaino bost-sei bider baino ez nuen huts egingo Santixau eta Santa Ana jaietara. Ia-ia urtero jo edo entzun dut harmoniuma", azaldu du.

**Zubiaurretarrek ekarria ote?**

Ez dago argi zelan ailegatu zen harmoniuma Garaira. Baina Alberdiren eta Aldekoa-Otaloraren

susmoen arabera, litekeena da Valentin Zubiaurren bitartekaritzagaz ekarri izana. "Musika tresnaren sortze urtea eta Zubiaurrek bizitako urteak bat egiten dute", dio Alberdik.

Zalantzak gorabehera, gauza bat segurua da. Azken urteotan mutu egoniko musika tresnari bizi berri bat eman diote. Eta aurrerantzean ere, bere soinuak data seinatueta herriko elizak bete ditzan, udalak udaletxean gordeko du harmoniuma.

## Osakidetzak 30 milioi euro inbertituko ditu lurretan plataforma logistiko bat sortzeko

**IURRETA • AITZIBER BASAURI**

Osakidetzak lehiaketa publikora ateratu berri ditu lurretan plataforma logistiko berri bat eraiki eta martxan ipintzeko lanak. ETBren egoitza izan zen eraikinean kokatuko den azpiegiturak hornidura sanitario eta ez-sanitarioak erostea, eta ospitaleetako eta osasun zentroetako biltegiak egiten den banaketa optimizatzeko aukera emango du, azaldu dutenez. Kontratuak zentroaren diseinua, eraikuntza eta kudeaketa batzen ditu eta 30 milioi euro inbertituko dituzte. Urte bi aurrekusi dituzte lanak amaitzeko.

Apirilean sinaturiko hitzarmen baten barruan, Bizkaiko Aldundiak Jaurlearitzari utzi dio ETBko eraikin zaharra.

## Basatzen mendi bizikleta martxa egingo dute lurretan, zapatuan

**IURRETA • A.B.**

Basatzen mendi bizikleta martxa solidarioa egingo dute zapatuan lurretan, Zaldai mendi taldeak antolatuta. Parte hartzaileak Askondo kaletik irtengo dira, 10:00etan, eta 28 kilometroko ibilbidea egingo dute, 1.000 metroko desnibel positibokoa. Izen emateagaz lorturiko dirua Angelman Sindromea elkarteari emango diote.

Aurretik izena ematea ([www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com)) 8 euro da; egunean bertan, 12. Izena ematen duten lehenengo 150 lagunek buff bana jasoko dute. Gosaria, dutxak, anoa gunea, amaierako luntxa eta bizikletak garbitzeko mangera eskainiko zaie parte hartzaileei.

**MATRIKULAZIOA 2024 - 2025**

Otsailaren 7tik 23ra

LANDAKO ESKOLA PUBLIKOA  
Hazi, hezi, hegan egin



INFORMAZIOA ETA IZEN EMATEAK

944 280 174 - 615 751 843

[idazkaria@landakoeskola.org](mailto:idazkaria@landakoeskola.org)



# Agustin Ibarrola omenduko dute, Durangoko Arte eta Historia museoan

Ekitaldia domekan izango da, urtarrilak 28, 12:00etan. Ibarrolaren semeak parte hartuko du



Ekitaldia Durangoko Arte eta Historia museoan izango da.

**DURANGO** • ARITZ MALDONADO

Papera ardatz erakusketaren itxiera ekitaldia datorren domekan egingo dute Durangoko Arte eta Historia museoan, 12:00etan; ekitaldia Agustin Ibarrola zena omentzeko baliatuko dute. Artista bizkaitarra azaroaren 17an hil zen.

Ekitaldian Agustin Ibarrolaren seme Irrintzi Ibarrolak parte hartuko du –erakusketaren komisarioa ere bada–, eta baita Mireia Elkoroiribe Durangoko alkateak ere. Geratzen diren egunak erakusketa bisitatzeko baliatzeko deia egin dute. Garazi Arrizabalaga museoko zuzendariak Ibarrolaren lana nabarmendu du: "Agustin Ibarrolaren lanak identifikatzeko gai gara, kolorea zelan aplikatzen duen soilik kontuan hartuta, bere pintzelkadengaitik".

## Politikan

Markel Larruskain  
Narbaiza  
EH Bildu



**Hauek dira nire printzipioak, baina gustatzen ez bazaizkizu, beste batzuk ditut**

Bada aspaldian arduratzen nauen gai bat. Alderdi politikoaren artean, instituzioetan eztabidak eman behar direnean, izan Legebiltzarrean, Diputazioan edo Durangoko Udalean, ez dut lortzen gobernuan daudenen norabidea ulertzea. Ez dago bihar-etzi nora joan nahi dutenaren zehaztasunik, noraeza ikusten dut, adierazpen batzuekin ados egon naiteke eta desados neurri gehienekin, baina zaila egiten zait planteatzen duten ereduaren zein den ulertzea.

Durangoko udal gobernuaren proposamen, adierazpen eta erabakietan kontrajarriak diren elementuak daude etengabe. Hau horrela izanda, zaila da eztabaida politiko batean murgiltzea edo posizionatzea. Argigarriak diren adibide batzuk jartzearren: merkatu plazako obra bai baina dinamizazioarako planik ez. Adierazpen zehaztetara joanda berriz: "Auzoguneak ez dira gure eredu", "San Faustoko Kapitane-nako proiektua ez dago gure lehentasunetan", baina aldi berean, "ez dugu esan zentro zibikoak egingo ez ditugunik".

Eskaera bat hemendik: egin proposamen argiak, azaldu zuten bideorria eta eztabaidatu dezagun eraiki nahi dugun herri ereduaren inguruan. EH Bildun badaukagu norabidea eta baditugu herritarrekin ondu nahi ditugun proposamen zehatzak. Prest gaude erronka honi heltzeko eta uste dugu oinarri horretatik abiatuta soilik ireki daitezkeela parte hartzerako espazio baliagarriak; beste aukera, momentuko inprobizazioa eta noraeza dira.

## Durungaldea asteen

### Elorrioko Udala katu kolonien "kudeaketa arduratsua" bultzatzen dabil

**ELORRIO** | Elorrioko Udala, Elorrixoko Katuak elkartegaz lankidetzan, kale katuen koloniak murrizteko eta kontrolatzeko lanean dabil. Eta udaletik jakinarazi dutenez, programa "fruituak ematen" dabil. Lehenengo, kale katuak atzeman, eta gero albaitariarenera eramaten dituzte esterilizatu eta parasitoak hiltzeko. Behin hori eginda, askatu egiten dituzte.

### 'Inauteriak, hartza eta mozorroen neguko festak berbaldia', gaur, Durangon

**DURANGO** | Oier Araolazak *Inauteriak, hartza eta mozorroen neguko festak* berbaldia emango du gaur, urtarrilak 26, 18:00etan, Durangoko Arte eta Historia Museoan. Bertan, Jose Mari Bastidak sorturiko *Surrandien Dantza* musika aurkezpena ere egongo da, Jaizaleko txistulariek jota.

### Atxondon gertatzen ari diren jarrera inzibikoen inguruan ohartarazi du udalak

**ATXONDO** | Aparkalekuei dagokienez, kotxeak behar ez den lekuan aparkatzeko ohitura handia dagoela gogoratu du udalak. Beste jarrera inzibikoetariko bat txakurren jabe batzuen aldetik ikusi dute. Izan ere, herritar askok txakurren kakak ez dituztela jasotzen kritikatu dute. Era berean, tamaina handiko zabor bilketako egunak ez direla errespetatzen azpimarratu dute.



### Berrizko Giza Eskubideen Taldeak deituta, Palestinaren aldeko argazkia atera dute

**BERRIZ** | Zapatuan mobilizazioa egin zuten Berrizen, *Geldi dezagun genozidioa Palestinan* lelopean. Olakueta plazan egin zuten ekitaldia, 13:00etan, Berrizko Giza Eskubideen Taldeak deituta. Palestinaren aldeko argazki herritarra atera zuten bertan. Bilbon, Iruñean, Gasteizen, Eibarren eta Tuteran ere deitu zuten mobilizatzeraz.

Urte amaieran ere Palestinaren aldeko ekitaldi bat egin zuten Berrizko gizarte zibileko hainbat erakunde eta elkartek. Egun hartan manifestu bat irakurri zuten, erasoak bertan behera uzteko eskatzeko.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:** Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Durungaldean gremioekin,  
zerikusia duen negoziarik baduzu,

**IPINI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON**

Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian





# San Blasak 2024

~ 2024 ~  
otsailak 3  
**Abadiño**

# San Blas

[www.abadiño.org](http://www.abadiño.org)



**Abadiño**  
Elizateko Udala

## San Blasak 2024: Egitaraua

### Otsailak 1, eguena

**18:30** 'Lur gainean, itzal azpian' liburuan oinarrituriko solasaldia. Leire Milikua Larramendi eta Izarne Axpe Portillo. Udal Mediatekan.

### Otsailak 2, barikua

**18:00** San Blas 2024 Pilota Txapelketa, Tornosolo trinketea: Txapelketako paleta goma mistoko finala.

**18:00** Familientzako disko festa eta elkartasun pintxo dastatzea, Casamanceko lagunaren eskutik. Elkartasun lonjan.

**21:00** Bertso afaria Gaztañodi elkartean Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertsolariekin. Txartelak salgai Petite liburu dendan eta Abarketeruena jatetxean.

### Otsailak 3, zapatua

**AZOKA:** Ganadua, baserriko tresnak eta makinak, ortuariak, fruta, gaztaia, txakolina, ogia, eztea, artisautza eta landareak.

**XXXI.** Abelburu erakusketa.

**9:00** Txistularien kalejira Txanbolin taldeagaz.

**12:00** Bertsolariak Ferialeku plazan: Txaber Altube, Garikoitz Sarriugarte eta Bittor Altube.

**12:00** Herri kirolak probalekuan. Aizkolariak: Iker Vicente, Nerea Arruti, Ugaitz Mugertza eta Karmele Gisasola. Harrijasotzaileak: Urdax Magunazelaia eta Haritz Aranguren.

**17:00** Muxutruk Erromeria, Ferialeku plazan

**17:00** Idi probak.

**17:00** DJ Kool, DJ Kuku&DJ Kene eta DJ Gartz. Elkartasun Lonjan.

**21:00** Kontzertua: Dj Party & Tiza. Txosnagunean.

**22:00** Idi probak.

**24:00** Kontzertua: Xabi Solano. Txosnagunean.

### Otsailak 4, domeka

**12:30** Txixiburduntzia Zelaietako Herri Eskolan.

**16:00** Txoborro magoaren 'Gezur gehiegi' ikuskizuna, Txanporta Kultur Etxean. Lehenengo saioa. Gonbidapenak urtarrilaren 29tik eskuragarri Errota Kultur Etxean eta Udal Mediatekan

**18:00** Txoborro magoaren 'Gezur gehiegi' ikuskizuna, Txanporta Kultur Etxean. Bigarren saioa. Gonbidapenak urtarrilaren 29tik eskuragarri Errota Kultur Etxean eta Udal Mediatekan (gonbidapen bi pertsonako, goitik jota).

**18:00** Idi probak.

### Otsailak 5, astelehena

**17:00** Idi probak.

**22:00** Idi probak. Ondoren, sari banaketa.

### Otsailak 9, barikua

**19:00** Abadiño II. Esku Pilota Txapelketa Herrikoia. Finala

### Otsailak 17, zapatua

**9:00** XXXIV. Burduntziko Bildots Txapelketa. Txakolin dastatzea.

**14:00** Bildots bazkaria probalekuan.

### OHARRA

Otsailaren 19tik martxoaren 2ra bitartean, San Blas jaiak 2024 argazki lehiaketako erakusketa Errota Kultur Etxean.

### ORDUTEGIA:

Astegunetan: **09:00 20:00**

Zapatuetan: **10:00-14:00**



**Iatxaberri**

*Txakal okela*

**ETXEZ ETXEKO OKELA  
SALMENTA ASTERO**

618439054 Ibon Lasuen  
620321184 Esther Ugaldea

**Talleres  
Serafín**  
S.Coop



Elorriagazar, 11  
MATIENA-ABADIÑO  
Tel.: 946 814 807



**ABARKETERUENA**

Iturritxo kalea, 6 · Txanporta plaza  
48220 ABADIÑO  
Tel.: 944 657 790

**San Blas  
egunean gurean:**

Ogitartekoak  
Hamarretakoak  
Menuak  
Pintxoak

**Giro euskalduna eta  
atsegina egun osoan!**



**ERLIA  
CONTENEDORES**

[www.contenedoreserlia.com](http://www.contenedoreserlia.com)

- Geure hondakindegia dugu.
- Harrobietako materialen banaketa.
- Obra-hondakinak eta industriako hondakinak kentzen ditugu.
- Industriako eta obretako hondakin inerteen kudeaketa.

Astola auzoa, 68 • 48220 ABADIÑO  
Tel.: 646 247 350 / 946 814 107 • Faxa: 946 810 204



**LASUEN**

ERAIKUNTZA · OBRA ZIBILA · ZABORTEGIAK



**CONSTRUCCIONES LASUEN**

Astola auzoa 68  
48220 Abadiño, Bizkaia  
Tel.: 946 81 40 36  
[clasuen@lasuen.com](mailto:clasuen@lasuen.com)



# San Blasetako nekazaritza azokak 100 bat ekoizle eta 190 bat abelburu bilduko ditu Abadiñon otsailaren 3an

Otsailaren 3an, San Blas egunean, doako autobus zerbitzua egongo da Traña-Matienatik Zelaietara; 9:00etatik 15:00etara bitartean izango da



Edurne Maguregi alkateordea eta Mikel Urrutia alkatea San Blasen aurkezpenean.

## ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Abadiñon ia dena prest dago otsailaren 3rako. Aurten ere, ekoizle eta abelburuz lepo beteko da Zelaieta. Hala iragarri zuten Abadiñoko Udaleko kideek atzo emaniko prentsaurrekoan. San Blas egunean 100 bat ekoiz-

le eta 190 bat abelburu egongo direla esan zuten. Bertaratzen direnek honako produktu hauek aurkituko dituzte, besteak beste: ortuariak, fruta, gazta, ezta, gozogintzako produktuak, ogia, kontserbak, sagardoa eta txakolina. Glutenik bako produktuen

postu bi ere egongo dira. Gana-duari dagokionez, behiak eta ardiak egongo dira ikusgai gehienbat. Baita zaldiak, astoak eta hegaztiak ere.

Bestalde, urtero legez, Txanbolin taldeko txistularien kalejirak emango dio hasiera San

Blas eguneko azokari, 09:00etan. 12:00etan, bertsolarien saioa egongo da Ferialekuan. Bertan, Txaber Altube, Garikoitz Sarriugarte eta Bittor Altube arituko dira kantuan. Ordu berean, herri kirol erakusketa hasiko da probalekuan. Bertan, Iker Vicente,

Nerea Arruti, Ugaitz Mugertza, Karmele Gisasola, Urdax Magunazelaia eta Haritz Aranguren arituko dira. Arratsaldean idi probak egongo dira.

San Blas egunari hasitako moduan emango diote amaiera abadiñarrek; hau da, musikagaz. 17:00etan Muxutruk erromeria taldea egongo da Ferialekuan, eta 00:00etan Xabi Solano arituko da


## Muxutruk erromeria eta Xabi Solano, besteak beste, Abadiñoko San Blas egunean

txosnagunean. Horrez gainera, herriko Djek musika ipiniko dute elkartasun lonjan.

## Autobus zerbitzua

Abadiñoko Udaleko kideek abadiñar guztiak eta inguruko herrietako biztanleak gonbidatu dituzte San Blas azokara. Gainera, jakinarazi dute doako autobus zerbitzua egongo dela Zelaietara joateko. Autobusa Traña-Matiena eta Zelaieta artean ibiliko da joan-etorrian, 9:00etatik 15:00etara bitartean.

**SERRATU S.L.**  
*Ondo pasa San Blasetan!*  
**Galdaragintza eta itxierak**  
*Enpresetan mantentze-lanak*  
Astola, 48 ABADIÑO · Tel.: 946 201 837  
serratu@serratu.com · [www.serratu.com](http://www.serratu.com)



**elur**  
arraindegia

**ORDUTEGIA**  
Astearte eta ostegunetan:  
08:30 - 13:00 eta 17:00 - 19:00  
Asteazken, ostiral eta larunbatetan:  
08:30 - 13:30

Elur Arraindegia  
Zeletabe, 19 Abadiño 48220 Bizkaia  
T. 649 597 187

**Luzia**  
hitzorduekin  
610 28 76 32

Masajeak  
Osteopatia  
Kinesiologia  
Kranio-sakral  
biodinamika

Artolazabal kalea, 6 - Abadiño

**Kaixo Abadiño!**

Badator San Blas! Ondo pasa jaietan!

**EROSKI**  
zurekin

# “Jendeak gure produktua baloratu duela ikusi dugunez, aurten okela salduko dugu sanblasetan, lehenengoz”

Ibon Lasuenek eta Esther Ugaldeak Latxaberri txahal-okela saltzen dute. Aurten, ganadua erakustez gainera, okela salduko dute sanblasetan



**AZOKA • AITOR RUIZ**

Ibon Lasuen eta Esther Ugaldea ganaduzaleak dira. Abadiñoako Gaztelua auzoan bizi dira eta Latxaberri okela markaren jabeak dira. Egungutxi falta da sanblasetarako eta gogotsu daude, lehenengoz okela salduko dutelako bertan.

**Zein nobedadegaz joango zarete aurtengo San Blas Azokara?**

**Esther Ugaldea:** Aurtengo nobedadea da okela salduko dugula bertan. Ibon ganaduagaz egongo da ganadu postuan, eta ni eta nire ahizpa okela saltzen.

**Zergaitik erabaki duzue okela saltzea azokan?**

**E.U.:** 2019an okela etxerik etxe saltzen hasi ginen, eta jendeak produktua baloratzen duela konturatu gara. Aurten zeozter desberdina egitea pentsatu dugu.

**Ibon Lasuen:** Zelaietako hileko bigarren domekako azokara ere joan ginen. Lehenengoz parte hartu genuen azoka batean, eta ardura apur bat ere bagenuen, baina jende asko etorri zen gugana eta gustura geratu ginen. Hori beste arrazoi garrantzitsu bat izan da sanblasetan okela saltzeko.

**Zein jenero topatuko dugu zuen postuan?**



MARKAK HAZTEN DIREN LURRA  
**Abadiñotik eta Zarauztik**  
Euskal Herri osora

📍 Abadiño 📍 Zarautz

[www.sorland.eus](http://www.sorland.eus) • [info@sorland.eus](mailto:info@sorland.eus) **sorland**


**elebe**  
ileapaindegia

SOLARIUM BERTIKALA  
MASAJE LASAIGARRIA  
ILE-APAINDEGIA  
ESTETIZISTA

Iturritxo, 2 behea  
• ABADIÑO •  
Tel.: 946 550 105

**MURUETA**  
BASERRIA

Murueta, 4, ABADIÑO  
Tel.: 658 747 471



**MOTOS TABIRA**  
KONTZESIONARIO OFIZIALA  
Salmenta · Konponketa · Boutiquea

DOAKO ASEGURUA  
ITZULI DA KEWAY  
125CC GUZTIETARAKO

Tel./Faxa: 94 681 40 68  
[motostabira@outlook.es](mailto:motostabira@outlook.es)  
[www.motostabira.es](http://www.motostabira.es)

Arzubia ind., 10-B pab. - 48220 MATIENA-ABADIÑO



ABADIÑOKO BATZOKIA

Ondo pasa  
San Blasetan!

Ferialeku plaza, 3



**MIKEL**  
HARATEGIA

Eskolakua, 2 Tel: 946 815 452  
48220 ABADIÑO





**E.U.:** Gazteluan hazitako txahalen okela, etxean hazitakoena, eta, horrez gainera, inguruan jaiotako txahalen okela ere bai. Beti ahalegintzen gara inguruko produktua saltzen.

lana behar den moduan azaldu. Azoka batek, ostera, gure lana eta jatorria azaltzeko aukera ematen digu. Bezeroari hurbiltasunez produktua saltzeko modua da.

**Ibon, ganadu ferian zeu egongo zara. Zer egingo duzu bertan?**

**I.L.:** Daukagun ganadua erakutsiko dut, ez da salmenta lekua. 9-10 behi piriniotar eroango ditugu eta nobedadea behi arraza desberdin bi izango dira: behi *fleckvieh* bat eta behi normandiar bat. Jendeari beste arraza batzuk erakutsi gura dizkiogu.

**Zelakoa da San Blas eguna eta zelan bizi duzue baserritar eta abadiñar legez?**

**E.U.:** Ni elorriarra naiz baina beti topera bizi izan dut San Blas eguna. Etxean betidanik gustatu izan zaizkigu ganadua eta feria, eta niretzat egun berezia da, aurtengoa batez ere.

**I.L.:** Abadiñarra naizenez eta ganadua 16 urtetatik eroan dudanez, oso egun inportantea da. Aurreko asteak ere inportanteak



dira, dena prestatu behar delako. Urtean zehar norberak eginiko lana erakusteko eguna da.

**Irakurleak zelan animatuko zenuke San Blas egunaren zuzen postura joateko?**

**I.L.:** San Blas eguneko azoka urteko lehenengo azokarik garrantzitsuenetakoa izaten da Bizkaian. Uste dut ganadu erakusketa polita egongo dela. Gainera, gure postuan Esther egon-

go da okela saltzen eta aukera ona izango da gure okela erosteko eta baita gu ezagutzeko ere.

**E.U.:** Bertako produktuak erakutsiko ditugulako eta okela salgai ipiniko dugulako.

**Banaketan ez dugu astirik izaten bezeroekin berba egiteko. Azokak, ostera, gure lana azaltzeko aukera ematen digu**

**Oraindino beharrezkoak dira saltzaile eta kontsumitzaileak bateratzeko lekuak? Baserrietako ekoizpena ezagutaraztea garrantzitsua dela pentsatzen duzue?**

**I.L.:** Bai. Banaketa egiten dugunean ez dugu astirik izaten bezeroekin berba egiteko. Ezagutzen gaituzte, baina ezin diegu gure

**prebendi**

Zaindu egiten zaitugu

- Segurtasun eta Osasun Koordinazioa (Jabeen erkidegoak eta enpresak)
- Obra Zuzendaritza
- Segurtasun eta Osasun Planak edo OKPD (Obraren Kudeaketa Prebentiboko Dokumentua)
- Emergentzia eta Autobabes Planak (Enpresak, Jabeen erkidegoak...)

www.prebendi.com | 944 483 002 | Antonio de Trueba Kalea 8, Bilbo

**neumáticos ETXEBARRIA**

Olio aldaketa  
Pneumatikoak (marka guztiak)  
Balazta-pastillak  
Motelgailuak

Uribitarte Industriagunea, 6 48220  
MATIENA - ABADIÑO  
Tel.: 946 232 520 - Faxa: 946 203 622  
www.neumaticosetxebarría.com

**GISASOLA PENTSUAK**

**EKO GARDEN**  
FLORES - PENSUAK - HERBIA

**GISASOLA PENTSUAK**  
**EKO GARDEN**  
LORAK - PENTSUAK - BARATZA  
TRAÑA - MATIENA - ABADIÑO - BIZKAIA  
TEL: 94 681 68 87  
C/ ZUBIBITARTE 14  
E-mail: gisasola.p@gmail.com

**ABADIÑO ESTANKOA**

Iturritxo, 2B behea  
48220 Abadiño  
Tel.: 946 201 385

**Z**

**ZAINDU HAGIN KLINIKA**  
Odontologia orokorra eta espezialitateak

Umeentzako odontologia • Ortodontzia (P.A.D.I. programa)  
Implanteak • Periodontzia • Aho-estetika • Protesiak • etab.

Mari Tere Zamalloa Juaristi  
Periodontzia espezializatua • Col.1005

Ferialeku, 1 • Abadiño  
Tel.: 94 465 73 42

APAINGARRIA ETA INDUSTRIALA

**Pinturas Sagasita Pinturak**

- FATXADETARAKO PROIEKTU BEREZIAK
- ERA GUZTIETAKO BARNE ETA KANPOKO DEKORAZIOAK

Sagasta auzoa - Anbe Goikoa  
- 48220 Abadiño - Bizkaia  
Tel.: 629 143 944

**ENGLISH CORNER**  
Abadiño

- CAMBRIDGE AZTERKETEN PRESTAKETA: FIRST (B1) ADVANCED (C1) PROFICIENCY (C2) BUSINESS ENGLISH ZIURTAGIRIAK (BEC)
- HEO AZTERKETEN PRESTAKETA: - KLASEAK ENPRESETAN: OROKORRA & BUSINESS ENGLISH - ESKOLA ERREFORTZUA

SOLOKOA, 4 - 661 048 674  
englishcornerabadiano@gmail.com

**OSORO**  
FISIOTERAPIA

Andra Mari Kalea, 3  
688 78 69 36

**BASQUE COUNTRY BIKE**

Iturritxo Kalea, 3 • Tel.: 688 69 08 15  
www.basquecountry.bike  
info@basquecountry.bike

f i

**Aurora Julià**

HOMEOPATIA - NATUROPATIA - OSASUN INTEGRALA  
Ordua hartzeko: 946 204 218 • Txanporta Plaza, behea - Abadiño  
www.aurorahomeopata.eus



# LABIRINTOA










Labirinto honetan egin bidea jostailuei jarraituta.



# PUZZLEA

Moztu artaziekin  
behean dauden  
pieza guztiak eta  
osatu puzzlea  
alboko laukizuzen  
honetan.



# Oraindik ez zara ANBOTOk whatsapp taldeko kide?

Durungaldeko azken albistek jaso gura badituzu batu Anbotoko whatsapp taldera



***Bidali 'ALTA'***

**688 635 041**

***telefono zenbakira***

\* Izan zaitetz berriemaile ere.  
Bidali zure argazki eta bideoak

**anboto**



## 'Moor Krad'

DANTZA

**BERRIZ::** Urtarrilak 27 / **ZORNOTZA::** Otsailak 2

### Ertza dantza konpainiaren 'Moor Krad' azken lana, Durangaldean

Ertza konpainiak *Moor Krad* ikuskizuna egingo du Berrizen eta Zornotzan. "Guk denok gordetzen dugun itzal hori argitara atera gura duen ikuskizuna da; bizitzan zehar, hainbat arrazoiengaitik ezkututzen ditugun gure alderdiez osaturiko itzala", azaldu du konpainiak. Bihar Berrizen taularatuko dute, 19:00etan, Kultur Etxean, eta otsailaren 2an Zornotza Aretoan, 20:00etan.

Ikuskizunaren sortzaileen esanetan, *Moor Krad*-en ez dago gezurrik, ez moral bikoitzik, ezta bizitza paralelorik ere... "Hemen dena argitara ateratzen da. Zerbait zure gustukoa ez bada, ez begiratu; eta oraindino ere ezegonkortasuna sortzen badu zugaran, agian bizkarrean daramazun zaku horretan bilatu beharko zenituzke arrazoiak", diote.

## Urtarrilaren 26an

### DURANGO **berbaldia**

'Inauteriak, hartza eta mozorroen neguko festak' (Hizlaria: Oier Araolaza Arrieta), 18:00etan, Arte eta Historia Museoa. Jose Mari Bastidak sorturiko Surrandien Dantza musika aurkeztuko dute, koreografiagaz (Jaizaleko txistulariak).

### ELORRIO **antzerkia**

'Familia sarekada' (Vaiven) 20:00etan, Arriola antzokian.

### IURRETA **ipuinak**

'Poco docentes' helduentzako ipuin kontaketa, (Nestor Bolaños, Kanaria Handia), 19:00etan, herri bibliotekan.

### IURRETA **ekitaldia**

Zaldai Mendi Erronka 2023ko finalisten sari banaketa, 19:00etan, Askondoko aterpean.

### ZORNOTZA **musika**

'¡Vamos que nos vamos!' (Golden Apple Quartet), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

## Urtarrilaren 27an

### ABADIÑO **antzerkia**

'Cuenta atrás' (Banarte), 19:00etan, Errota kultur etxean.

### DURANGO **antzerkia**

'Zeozertan dabil baina ez dakit zertan' (Metrokoadroka kolektiboa), 19:00etan, San Agustín kulturgunean.

### ELORRIO **berbaldia**

'Denon berdeguneen alde'. Hiriko Zuhaitzen Defentsarako Elkartearen I. Batzarra, 10:00etatik 12:45era, Iturri kultur etxean. Izena eman behar da: basobiziakplataforma@gmail.com.

### IURRETA **martxa**

Basatzan VII. Mendiko Bizikleta Martxa solidarioa, 10:00etan, Askondo aterpean. Aurretik izena ematea (www.kirolprobak.com).

### IURRETA **mendia**

Gallandara igoera frontalekin, 18:00etan, Askondoko aterpean. Txikienek ibilbide erdian batzeko aukera dute, Lukuarrietatik hasita.

### ZORNOTZA **musika**

II. Musikagaz Fest Jaialdia: Nahiez+ Ganibet + Pary&Tiza + Akaleia + Eire + Zilibito Records + Sistemak Arriskutsuak Dira S.A.D + Intza + Ameba + Lotu + janus Lester + Lilo + Bengoa. Kontzertuak 13:00etatik gauerdia bitartean, Zornotzan.

## Urtarrilaren 28ra bitartean

### DURANGO **erakusketa**

'Papera ardatz' (Agustín Ibarrolaren artelanak), Arte eta Historia museoa.

## Urtarrilaren 28an

### DURANGO **ekitaldia**

'Durango kantari' ekitaldia, 12:00etan, Ezkurdin.

### ELORRIO **ekitaldia**

Zuhaitz landaketa, 09:00etan, San Jose parkeko frontoitik irtenda. Elorrio-Atxondo Baso Biziak elkarteak antolatuta.

### ELORRIO **antzerkia**

'Ali Baba eta 40 lapurrak' (Borobil Teatro), 17:00etan, Arriola antzokian.

### IURRETA **ipuinak**

Amaia Egíazu, 12:00etan, Askondon.

### ZORNOTZA **solasaldia**

Minbiziari buruzko solasaldia (Min(bizia) Podcasta), 12:00etan, Besue elkartearen.

## Urtarrilaren 31n

### ELORRIO **aurkezpena**

23. Korrikaren aurkezpen bilera, 18:00etan, Iturri kultur etxean. Ondoren, *Oihanetxea* dokumentala proiektatuko dute.

## Urtarrilaren 31ra bitartean

### ELORRIO **erakusketa**

'Dronegrafiak - Begirada hegalaria' erakusketa (Santiago Yaniz), Iturri kultur etxean.

## Otsailaren 1ean

### ABADIÑO **aurkezpena**

'Lur gainean, itzal azpian' (Leire Milikua Larramendi) liburuaren aurkezpena eta solasaldia, 18:30ean, Udal Mediatekan.

### ZALDIBAR **aurkezpena**

'Markos Gimenez 101 letrakartel' liburuaren aurkezpena, 19:00etan, liburutegi zaharrean.

## Otsailaren 2an

### ABADIÑO **izena ematea**

XXXIV. Burduntziko Bildots Txapelketan izena emateko azken eguna, Errota kultur etxean edo Udal Mediatekan. Otsailaren 17an egingo den txapelketan gehienez 50 bildots erreko dira, probalekuaren alboan. Izena emateko sei euro ordaindu behar dira.

## Zinema

### :: Berriz KULTUR ETXEA

• *Anatomía de una caída*  
barikua 26: 19:30  
domeka 28: 19:00

### :: Durango ZUGAZA ZINEMA

• *Little Richard: I am everything*  
barikua 26: 18:30  
zapateria 27: 17:00/ 21:30  
domeka 28: 17:00  
astelehena 29: 18:00 / 20:15  
martitena 30: 18:00/ 20:15  
eguzatena 31: 20:30

### • *El último soldado*

barikua 26: 18:30 / 21:00  
zapateria 27: 19:15 / 21:30  
domeka 28: 19:30  
astelehena 29: 18:00  
martitena 30: 20:15  
eguzatena 31: 20:30

### • *Faro*

barikua 26: 21:00  
zapateria 27: 17:00/ 19:15  
domeka 28: 19:30  
astelehena 29: 18:00 / 20:15  
martitena 30: 18:00/ 20:15  
eguzatena 31: 18:30

### • *Miller's girl*

barikua 26: 18:30 / 21:00  
zapateria 27: 19:15 / 21:30  
domeka 28: 17:00 / 19:30  
astelehena 29: 20:15  
martitena 30: 18:00  
eguzatena 31: 18:30

### • *El arca de Noé*

zapateria 27: 17:00  
domeka 28: 17:00

### • *Don Carlo (opera)*

eguzatena 31: 19:00

### :: Elorrio ARRIOLA ANTZOKIA

#### • *Yo capitán*

zapateria 27: 20:00  
domeka 28: 20:00  
astelehena 29: 20:00

### :: Zornotza ZORNOTZA ARETOA

#### • *Los que se quedan*

zapateria 27: 20:00  
domeka 28: 20:00  
astelehena 29: 20:15

#### • *Migrazioa, bidaia ahaztezina*

zapateria 27: 17:00  
domeka 28: 17:00

# Osasun gida

 **Podologia**  
PSE: 214/06

  
**OINEN ZAINZA ETA TRATAMENDUA**  
**IBILKERAREN AZTERKETA BIOMEKANIKOA**  
**NEURRIRA EGINDAKO PLANTILAK**

Herriko Gudarien kalea, 10 BEHEA  
DURANGO, Tel./Faxa: 946 215 404

 **Optometria**  
PSE: 162/13

NAIA ZABALA AUZMENDI  
11587 kol. zk.

  
**keinu**  
OPTOMETRIA ZENTROA

- JOKABIDE OPTOMETRIA • HAURREN IKUSMENA
- IKUSMENAREN ENTRENAMENDUA • JATORRIZKO ERREFLEXUAK • FOTOTERAPIA OPTOMETRIKOA
- SENA ENTZUMENAREN ESTIMULAZIOA • KIROL IKUSMENA • GARUNEKO LESIOAK • UKIPEN LENTEAK
- ORTO-K ETA MIOPIAREN KONTROLA

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 946 225 099  
[www.keinuoptometriazentroa.com](http://www.keinuoptometriazentroa.com)

 **Proktologia**  
PSE: 16/22

**prōktós.clinic**

Uzki eta zoru-pelbikoko patologien tratamendua

Mikeldi Kalea, 13, 48200 Durango, Bizkaia (MAM Zentroa)  
674 322 360 / 747 474 699  
[info@proktos.clinic](mailto:info@proktos.clinic)

 **Fisioterapia**  
PSE: 119/13

  
**ZAINDUZ**  
Fisioterapia • Osteopatia

Pilateseko klaseak eskaintzen ditugu. Saio pertsonalizatuak dira, talde txikietan.

Trañabarren 13, 4. blokea behe eskuma  
MATIENA-ABADIÑO  
944 657 132 - 686 906 374

 **Fisioterapia**  
PSE: 57/16

  
**pablo zubizarreta**  
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D  
DURANGO  
[pzubizarreta@gmail.com](mailto:pzubizarreta@gmail.com)  
946 550 049 - 695 784 963

 **Odontologia**  
PSE: 145/13

  
**clínica dental hartz klinika**  
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA - INPLANTOLOGIA - KIRURGIA - ORTODONTZIA OHIKOA (DAMON) ETA IKUSEZINA - ODONTOPEDIATRIA - PADI - HORTZETAKO ESTETIKA - HORTZETAKO ESKANERRA (ITERO ETA CBCT)

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454  
[uecdental@gmail.com](mailto:uecdental@gmail.com)

 **Odontologia**  
PSE: 26/22

**viteri**  
HORTZ-KLINIKA  
Konfiantzazko hartz klinika Durangon

**DIAGNOSTIKO ZEHATZA EGITEKO ETA, HORRELA, TRATAMENDU ERAGINKORRA ETA SEGURUA ESKAINTZEKO BEHAR DEN TEKNOLOGIA DAUKAGU.**

Orduetgia:  
Astelehenetik ostiralera: 10:00 - 14:00 | 16:00 - 20:00  
Larunbata: hitzordua hartuta

944 14 80 36 | 626 18 30 30  
Askatasun etorbidea 15, 48200 Durango, Bizkaia  
[www.clinica dental viteri.com](http://www.clinica dental viteri.com)



# “Apur bat gordin esanda, euskal kultura transexualizatu gura izan dut, gure lekua egitea hemen, kanpokora ez jotzeko”

Mikel Uribelarrea durangarrak Denonartean argitaletxeagaz kaleratu du 'Gorputz txiki batean jaio nintzen' eleberria; hainbat ilustraziok borobiltzen dute lana



**Mikel Uribelarrea Losa**

Sortzailea

DURANGO | 1992

kerrak eman gura dizkiot Durango-ko aurreko udal gobernu taldeari, beka emateagaitik. Laguntza horri eskerrak neure burua prest ikusi dut, eta jolasetik idatzi ahal izan dut. Atal batzuk, beharbada, amorrutik idatzi ditut, eta zer sartu eta zer ez erabaki behar izan dut.

Marrazkiek erraztu egiten dute irakurketa, eta niri ere errazten didate idaztea. Idazten dudanean, irudiak idazten ditut. Gehiago kostatzen zait idaztea. Liburu honetan, Ane Argoitia zuzentzaileak lagundu dit. Asko lagundu dit, izan ere, nik irudiekin pentsatzen dut eta laguntasuna behar izan dut gramatika zaintzerako orduan. Eleberriak marrazki gehiago izango zuela uste nuen, baina horrela irten zait. Hurrengo lana komiki bat izango delakoan nago. Denonartean argitaletxeagaz kaleratu dut eta jende askok uste zuen eleberri grafiko bat dela, baina ez, hau apur bat klasikoagoa da, eleberria da, ilustrazioekin.

**Batez ere, trans gazteek irakurtzea gura nuke. Kultura mordoa dago, baina gatx da identifikatu zaitezkeen pertsonaiak aurkitzea**

**LITERATURA • ARITZ MALDONADO**

**Mikel Uribelarrea durangarrak 'Gorputz txiki batean jaio nintzen' liburua kaleratu du oraintsu. Urteetan, durangarra hainbat diziplinatan trebatu da: antzezten, marrazten, eta oraingoan, idazten. Sortzaileak erdigunean ipini gura ditu trans pertsonak, eta euskal kulturaren dagoen hutsune bati ekarpena egitea da bere asmoa.**

**Gorputz txiki batean jaio nintzen ipuin bat izan behar zen, ezta?**

Ipuin pedagogiko bat izan behar zuen. Garai hartan, Urtxintxa Eskolan hezkidetzak ikasten nengibilen eta bertarako egitea zen nire asmoa. Gero, Durango Sor(tzaileen)leku beka lortu nuen, eta lanean sakondu ahal izan nuen horrela. Zerbait poetikoa egin gura nuen, jolasetik ere sortua, eta gauzak zalantzan ipintzea prozesuan.

**Zergaitik deitzen da 'Gorputz txiki batean jaio nintzen'?**

Unibertsala delako. Denok gorputz txiki batean jaiotzen gara. Eta zer izan behar dugun esaten digute gero; genero bat esleitzen digute, eta itxuragaz berdin, edertasun kanon batzuetara moldatu behar dugu. Hortik hasten naiz, mundu guztiari pasatzen zaion gauza bat delako. Batzuk ondo harremantzen dira esleipen horiekin, eta beste batzuk ez. Kasu honetan, protagonista pertsona ez bitar bat da, transa, eta ez da egokitzen ez neska generoan ez mutil generoan. Zer izan behar duzun esaten dizute, baina zu ez zara moldatzen horretara, eta hori ibilbide bat hasten da.

**Adin guztietarako moduko irakurketa da?**

Hamabi urtetik gorakoentzako eleberria da, irakurtzeko erraza. Hainbatean, egunerokotasunean oinarritzen da. Ez da saiakera bat, eta ez du teorizatzen, baina egunerokotasun batetik bai politizatzen du. Egunerokoan gertatzen

den gauza tipiko asko ipintzen da zalantzan; eta sorpresa asko ere badago: desioak, ametsak, abenturak... Oso gizatiarra da, oso humanoa. Sarri, politizatzen denean teoriara jo ohi dugu; euskal kulturaren, adibidez, badaude transfeminismoaren inguruko

**Uste dut Euskal Herrian trans literatura gabezia dagoela, eta aktibismoa plazeretik bizitzea ere falta dela esango nuke**

teoriak, edo soziologiatik landurikoak, baina nik lurrera ekarri eta egunerokotasunera jo gura nuen. Euskal kulturaren gu zelan kokatzen garen erakutsi gura nuen, ez delako erraza. Horregaitik jotzen dugu askotan kanpora trans

kulturaren bila. Apur bat gordin esanda, euskal kultura transexualizatu gura izan dut, gure lekua egitea hemen.

**Euskal literaturan trans literatura gabezia dago? Ala orokorra dela esango zenuke?**

Hiru urtez Bartzelonan bizitzen egon nintzen. Orain beste hile batzuk daramatzat han, eta han gehiago dagoela esango nuke. Uste dut Euskal Herrian gabezia dagoela, eta aktibismoa plazeretik bizitzea falta dela ere esango nuke. Militantzia garrantzitsua da, jakina, baina kultura ere garrantzitsua da. Gabezia badago egon, baina geroago eta lan gehiago ere bai, eta horregaz oso pozik nago. Orokorra dela esango nuke, baina Euskal Herrian oraindino gehiago.

**Testuak ez ezik, liburuko irudiak ere zeuk egin dituzu.**

Bai, niretzat lan potoloa izan da. Ez da erraza izan eta horregaitik ere banago pozik. Txikitatik egin gura nuen gauza bat da, eta lortu dut. Es-

**Beka jasoteak lagunduko dizu sortzaile legez.**

Ez da erraza liburu bat ateratzea, eta beste lan batzuekin uztartu behar izaten duzu, gainera. Baina, egia esan, horrelako laguntzekin denbora gehiago atera dezakezu sorkuntzarako. Sortze prozesua kudeatzen laguntzen du.

**Hemendik aurrera, zer bide edukiko du liburua?**

Batez ere, trans gazteek irakurtzea gura nuke. Kultura mordoa dago, baina gatx da identifikatu zaitezkeen pertsonaiak aurkitzea. Trans pertsonaiek kulturaren protagonismoa gehiago izatea gura nuke, baita euskal kulturaren ere, jakina, trans irakurleek euren burua identifikatuta ikusi dezaten. Hori oso garrantzitsua da, gazte trans asko galduta dagoelako, eta askotan kulturara jotzen da hori betetzeko. Beraz, oso ondo dago erakustea, euskal kulturagaz ere gozatu dezakegula eta gure abenturak bizi ditza-kegula.





Eire. MAITANE CAMPOS

## Zornotzako Musikagaz Fest jaialdiaren bigarren edizioa, zapatuan

Zornotzako Udalak, Zornotzako Gazteak, Gerediaga elkarteak eta Musika Bulegoak egin dute jaialdia, elkarlanean; zuzeneko emanaldiak 13:00etan hasiko dira

### MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Talentu berriei "trapolin lana" egiteko asmoagaz ipini zuten mar txan, iaz, Musikagaz Fest jaialdia Zornotzan. Horrela, urtarrilaren 27an, zapatua, dozena bat artistak baino gehiagok kontzertua emango dute Zornotzako zenbait txokotan. Besteak beste, Bengo, Eire (argazkian), Janus Laester, Sistemak Arriskutsuak Dira S.A.D eta Lilo taldeek joko dute. Gerediaga elkarteak horrelako ekimenak egitearen garrantzia azpimarratu du, ekimenok Durangoko Azokan aurkezten diren proiektuei segida

ematen dietelako. "Azokaren asmo nagusietariko bat euskal kultura ikusaraztea da, baina ez Azokak irauten duen egunetan bakarrik. Azokak trapolin bat izan behar du jauzi egiteko, baina gero ura egon behar da eta Zornotzan bada go ur hori. Sortzaileak lan egiteko baldintzak topatuko ditu bertan, eta horrelako tokietan hasten da ibilbide profesionala", azaldu du Beñat Gaztelurrutia koordinatzaileak. Musika Bulegoko Jon Baguesek erakundeen arteko elkarlana nabarmendu du: "Talentu berriei atea zabaltzeko aukera itzela da

hau. Elkarlana da horrelako ekimenei segida emateko aukerarik onena".

### DA PRO!

Jaialdian parte hartuko duten taldeen erdiak DA PRO! egitasmoaren bitartez aukeratu dituzte, eta beste erdiak Zornotzako Gazteak elkarrearen bitartez. Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak azpimarratu du parte hartzen duten taldeek euskaraz sortzen dutela. "Jaialdi hau plataforma paregabea da euren lanak aurkeztu ditzaten", adierazi du.

## Metrokoadroka konpainiaren azkena, San Agustinen

Durangoko San Agustin kulturgunean izango da emanaldia, hilak 27, zapatua, 19:00etan

### ANTZERKIA • A. M.

Familia ereduak dira Metrokoadroka kolektiboaren *Zeozertan dabil baina ez dakit zertan* lanaren ardatza. Euren berbetan, "sit-com komedia eta poesia bisualaren arteko antzezlan" osatu dute. Maite Aizpurua, Edurne Azkarate eta Javier Barandiaran aktoreek parte hartzen dute lanean, eta ikusleak antzezlanak aurrera egin arte ez du jakingo zein den hiruren arteko hartu-eman. Antzerkiak irauten duen 75 minutuetan

zehar, "eta gu, familia bat gara?" galdetuko diote elkarri. Zuzendari artistikoak Marina Suarez eta Oier Guillan dira.

2022ko udaberrian eginiko hiru egonalditan garatu zuten sortze prozesua, eta Azpeitiko Antzerki Topaketetan estreinatu zuten *Zeozertan dabil baina ez dakit zertan*. Metrokoadroka kolektiboa lan hau aurkezteko biran murgilduta dago, eta maiatzean Zornotza aretoan ikusteko aukera egongo da.



Edurne Azkarate eta Javier Barandiaran. MENDI URRUZUNO

## Gai librean

### Hemorragia bat

Galduta egotearen antza hartu genion eszenari. Arraroa eta beldurgarria zen. Zaila zen neurria hartzea porlanezko anarkitektura horri.

Beluse gorriko gortina batekin egin genuen topo. Kasik irrealia zirudien kolore gorri horren sugarrak liluratu gintuen. Inguruko iluntasunaren kontrastearekin soilik zen agerikoa zuen indar sinboliko guztia. Eta gu, begira-begira, mundu errearen eta ametsetakoaren arteko hemorragiaren parean.

Ez dago goi mailako egirik baina, ez sartzea baino, hobe zen barrura sartzea. Arratoiek ere nahiago dute, edozer gauza dela ere, zerbait sentitu, ezer ez sentitzearen ordez. Eta desiraren urgentziaz murgildu ginen.



Ainhoa Olaso Sopelana Behargina

**Inguruko iluntasunaren kontrastearekin soilik zen agerikoa zuen indar sinboliko guztia**

**Bidean gure desirak txikitzen joan ginen. Baina zerbaitek ihes egin zuen istorio barrutik, gortinapetik**

Gure bizitzaren ertzak zabaldu ziren. Etorkizunak aurrera egiten duenaren ideia desaktibatu zitzaigun. Ergatiboak, aditzak eta objektuak

orekatuta zeuden. Geroari buruzko zirriborro limurtzaileak irmo sinestuen. Poesia bilatu genuen trafikoko seinaleetan. Bizirauteko beharizan bat baita edertasuna, jatea bezainbeste.

Ez genekien nola heldu ginen horraino, baina itxurazko edozein errealitate baino benetakoagoa zirudien. Nahasia zen. Bizigura ematen zigun. Argi geneukan teloi atzeko horri eustea zela nahi genuen gauza bakarra. Baserri bat harriz harri berrogeita hamar metrotara mugitzeko prest geundeke bertan geratzearen truke.

Piztien soneto batek itzultzeko agindua eman zuen orduan. Bidean, gure desirak txikitzen joan ginen. Baina zerbaitek ihes egin zuen istorio barrutik, gortinapetik. Eta ezinezkoa zirudiena, hor nonbait dabil.



**Imanol Aiertzaguen Martin**

DKT klubeko atleta  
ABADIÑO | 2003

## “400 metroko lasterketari beldurra kendu behar diodala esaten dit entrenatzaileak”

Abiadura probetan eskualdeak duen harribitxietariko bat da Aiertzaguen. Euskadiko txapelketan bere dohainak erakutsi ditu

ATLETISMOA • JOSEBA DERTEANO

**Imanol Aiertzaguenak domina bi irabazi ditu Euskadiko Atletismo Txapelketan: zilarra 400 metroko proban, 50.22ko denboragaz, eta brontzea 200 metrokoan, 22.36ko denboragaz. 20 urteagaz, senior mailan irabazten dituen lehenengo dominak dira.**

**Aztertu ditzagun dominak banaka. Zelan joan zen 400 metroko finala?**

400 metroko proban itzuli bi dira. Pista estalian, korrikalari guztiak barruko kalean batzen gara bigarren itzulia hasterako. Lehenengo kalera bigarren tokian sartzea zen estrategia, liderraren atzean. Ondo irten zitzaidan. Beharbada denbora hobetxoa egitea espero nuen, baina oso pozik nago.

**Zelan joan zen 200 metroko finala?**

Domina irabaztea sorpresa izan zen. Izan ere, finalak txanda bitan banatu zituzten eta beste finalean urrea eta zilarra irabaziko zutenak zeuden. Nire beldurra zen aurrekoek atzekoei tira egingo zietela; hau da, batzuek besteen erritmoa aprobetxatuko zutela, euren denborak hobetzeko. Baina ez zen hori gertatu. Pozik nago dominagaz, eta baita eginiko denboragaz ere.

**Proba bietan denbora hobea eginiko zara.**

Bai, baina aire librean. Pista estalian bihurtu gero, beldurra kendu behar diodala esaten dit entrenatzaileak. Gainera, korrikalariak kale berean batzen gara, eta aire librean ez. Horrek guzti horrek eragina izaten du denboran.

**Distantzia bietatik zeinetan sentitzen zara gusturen?**

400 metrokoan. Horixe da nire distantzia eta horri begira entrenatzen naiz. 200 metrokoa gehigarri bat da.

**400ekoa topera egiten den proba da?**

Topera ibili baino, abiaduraren eta iraupenaren arteko oreka bilatu behar da. Ahalik eta arinen joan behar duzu helmugaraino, erritmoari eutsi behar diozula jakinda. Arinegi irtenda, hustuta heltzeko arriskua duzu eta kontrakoa ere gertatu daiteke. Ez da erraza oreka topatzea. Hor badut oraindino zer ikasi, eta hori lantzen dut Orkatz Beitia entrenatzaileagaz. 400 metroko probari beldurra kendu behar diodala esaten dit entrenatzaileak. Egia esan, indarrez lasterregi hustuko naizen arduraz izaten dut batzuetan.

**Otsaileko lehenengo asteburuan Espainiako txapelketa lehiatuko da Antequeran, Andaluzian. Han izango zara?**

Iazko txapelketan aritzeko eskatzen zituzten denborak erreferen-

tzia legez hartuta, aurten lortu ditudan denborek nahikoa izan beharko lukete sailkatzeko, baina ikusiko dugu. Hara joanez gero, iazko lana hobetzea izango dut helburu.

**Zelan joan zen iazko txapelketa?**

Erdipurdi. Eraikin estaliko pistak diferenteak dira tokitik tokira. Ni Donostiakoan ibiltzera ohituta

**“Atletismoak fisika ikasketetako estresa arintzen laguntzen dit; ondo antolatzea da gakoa”**



Imanol Aiertzaguen —ezkerretik bigarrena— Euskadiko txapelketako proba batean.

nago eta iaz kostatu egin zitzaidan Antequerakora egokitzea: inklinazio txikiagoa du eta zabalagoa da. Ez dakit, arraroa egiten zitzaidan eta ez nuen neure onena eman. Arantza hori atera gura nuke aurten.

**Final batera sailkatzea larregi amestea da?**

Arrakasta itzela eta sorpresa litzateke. Baina sekula ez da jakiten. Esaterako, iaz, aire librean eta 23 urtez azpiko mailan, nire marka pertsonala hobetzea eta lan txukuna egitea nituen helburu Espainiako txapelketan eta, ezustean, finalaren atarian geratu nintzen, bederatzigarren. Zortzi sailkatzen ziren finalera. “Beharbada helburu lez finalera heltzea kontsideratu beharko nuke”, pentsatu nuen. Baina hori aire librean zen. Pista estalian, Antequerako pista diferenteak segurtasun falta eragiten didanez, lorpen handia litzateke finalean egotea.

**Klub modura, DKTk Espainiako Lehenengo mailari eustea izango du helburu. Taldeko finkoetariko bat bihurtu zara. Zelan daramazu taldean geroago eta pisu eta erantzukizun handiagoa izatea?**

Horrelako kontuetan asko ez pentsatzen ahalegintzen naiz, neure burua larregi ez presionatzeko. Baina konturatu naiz, bai. Ligako jardunaldietara joaten garenean neu naiz beti lasterketa batean nabilena; erreleboetan ere nire izena egoten da zerrendan.

**Asteko lau egunetan entrenatzen zara, eta fisika ikasketak egiten zabilza Leioako unibertsitatean. Gatxa da arlo biak bateratzea?**

Gatxa da, bai, eta ondo antolatzea da gakoa. Ondo antolatuz gero, bateragarriak dira eta horretan ahalegintzen naiz. Gainera, karrera gatxa ikastera, estresa kentzen lagunduko didan zerbait behar dut. Atletismoak ikasketetako estresa arintzen laguntzen dit.

# Jaitsiera ozta-ozta ekiditetik, igoera postuan egotera igaro da Mendibeltz

Lehentasunezko Mailatik Ohorezko mailara igo daiteke, klubaren historian lehenengoz



Mendibeltz areto futbol klubeko aurtengo taldea. MENDIBELTZ

**ARETO FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO**  
Durangoko Mendibeltz areto futbol taldea ezustekoa ematen dabil Lehentasunezko Mailan. Iaz ozta-ozta ekidin zuen jaitsiera, azken-aurreko jardunaldian, baina aurrean, lehenengo itzulia amaitzean dagoenean, kluba igoera postuan dago. Klubaren historian lehenengoz —2005an sortu zen—, Ohorezko Mailara igo daiteke, Bizkaiko kategoriarik handienara.

Mikel Rodriguez kapitainaren esanetan, taldeko "giro ona" da martxa onaren arrazoi nagusia. Sakonago aztertuta, izen propioak

ere nabarmendu daitezke. Esaterako, Rodriguez bera, Iker Sarriugarte eta Ian Blanco. Taldeko goleatzaile nagusiak dira, hamar, bederatzi eta zazpi golekin, hurrenez hurren. Azken izen biak nobedadea dira taldean: Sarriugarte futboletik dator eta Blanco areto futbolera bueltatu da. Hala ere, Rodriguezek azpimarratu du taldeko jokalar asko dabilzala fin ate aurrean, iaz ez bezala. Horrela, mailako hirugarren talderik goleatzaileen dira, 14 partidutan 45 sartuta. Mendibeltz golik gutxien jaso duen hirugarren taldea ere bada, eta,

arlor horretan, Cledor Diatta atezainaren lana nabarmendu beharra dago. 20 urteko gaztea iaz batu zen taldera. Aurretik, federatu mailan nahiz atezain postuan jokatu barik zegoen, baina ez zen kokildu. Urtebetean "asko" hobetu du taktikoki, eta gainerakoa berezkoa du, "sekulako erreflexuak" ditu eta.

Klubaren 20. urteurrena Ohorezko Mailan ospatzeko aukera badago egon, baina Rodriguezek dio ez dutela horretan larregi pentsatzen: "Gozatzeko gabilta areto futboleant, eta horretan ahalegintzen gara astebururo, ondo pasatzen".

# Amorebieta garaipen premian doa aurkari zuzenaren zelaira

Amorebietaren antzera Cartagena ere puntu beharrean dago; sailkapeneko zuloako talde biek neurtuko dituzte indarrak



Zapatu arratsaldean jokatuko dute Cartagenaren kontrako neurketa.

**FUTBOLA • J.D.**

Garaipen lehorre luzeak Bigarren Mailarako zuloa eraman du Amorebieta. Jandro Castrok entrenaturiko taldeak puntu bi baino ez ditu batu azaro erditik honako zazpi jardunaldietan. Beraz, puntu premian bisitatu du Cartagenaren zelaia, zapatu arratsaldean. Talde murtziarra ere ez dabil askoz hobeto, Amorebieta baino postu bat gorago sailkapenean, azken-aurreko tokian.

Amorebietako arduradunek hiru jokalar fitxatu dituzte

**Egoerari buelta emateko, hiru jokalar berri ekarri dituzte; tartean, Iker Unzueta abadiñarra**

zulutik irteten ahalegintzeko: Iker Unzueta, Unai Bustintza eta Angel Troncho. Unzueta aurrelari abadiñarra Portugalgo Vizela taldeetik dator, utzita, eta bigarrenez jantziko du elastiko urdina. 2020tik 2022ra ere aritu zen Amorebietan.

## Jokaldia

### Pilotaren hotsa

Eskuz binakako txapelketa nagusiko protagonistei buruz galdezka hasiz gero, Mariezkurrena, Zabaleta edo Altuna izango lirateke seguraski izen bereziak. Nik, ordea, kantxaz kanpokoa nabarmenduko nuke; pilotazalea, alegia. Betekadaz betekada igarotzen ari da aurtengo txapelketa eta horrek energia dosia ematen dio gure kirolari.

Esku pilotaren eskaintza asko aldatzen ari da urteotan. Gaur egun, jaialdiaren barruan, partiduez gain, musikaz, zozketez edota atsedendietako jolasez ere goza dezakegu. Horrekin batera, pilotalekuetara doan jendearen profila ere aldatu da. Lehen gehienetan adin aurreratuko gizonezkoak joaten ziren moduan, neska-mutiko gazte ugari ikusi dezakegu egun harmailetan. Honek guztiak, arestian esan bezala,



Iñaki Iza Zarazua  
Pilotari ohia

### Pilotaren hotsak, materialari buruzko informazioa emateaz gain, ikuskizuna bere ere janzten du

esperantza dosia dakar, baina baita idatzi gabeko arau batzuen aldaketak ere. Izan ere, azkenaldian sarri-sarri ikusten dugu pilotalekuetan futbolaren kutsua duen giroa eta gero eta handiagoa da partidu osoa Txoria txori zein Ikusi mendizaleak kantatzen pasatzen duten zaleen kopurua. Halakoetan, bertso finaletako amaierako agurretan, bertsolari bakoitzak kantatutako ia puntu bakoitzari txaloak jotzen dizkion zalea dakart gogora. Batzuek ez dute hurrengo puntuaren hasiera entzuten uzten; besteek, aldiz, pilotakaden soinua. Eta badute beren garrantzia.

Gogoan daukat Zornotzako frontoi zaharrera sartu nintzen lehenengo aldian, pilota gogorraren hotsak txunditu ninduela gehien. Hortik aurrera ez nuen atsedetik izan (ezta eman ere) pilotalekuko kantxeroak oparitutako pilota goxuz gain, burutik kendu ezinik nuen soinua hura egiten zuen pilota bat esku artean izan artean.

Horrekin lotuta, hilaren 14an Gasteizko Ogetan jokatuako jaialdia ekarri nahiko nuke hitzotara. Euzkitzek eta Barriolak "pilotako giro sana" nabarmendu zuten, eta hala nabaritu nuen telebistaz nik ere. Tantoa jokatzen ari ziren bitartean isiltasun handia zegoen eta marmarrak hartzen zuen honen tokia tantoak nahasten zirenetan. Pilotaren hotsak, materialari buruzko informazioa emateaz gain, ikuskizuna bera ere janzten baitu.

# Jairik jai!

## Berrizko jaietako nekazaritza olinpiadak



## Bakixako danborrada

lurreta





**ETXETXO**  
INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)



**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



**ISD** Inmobiliaria  
del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)  
inmoduranguesado@gmail.com



**Fernando Uribe**  
AGENCIA INMOBILIARIA  
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO  
Tel.: 946 816 423 • [www.fernandouribe.es](http://www.fernandouribe.es)



**DURANGO**  
50 m<sup>2</sup>. Etxe osoak kanpora ematen du. Sukalde-jangela, egongela, 2 logela eta komuna.  
**95.000€ C.E.E. G**



**IURRETA**  
60 m<sup>2</sup>. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. Bizitzen sartzeko moduan.  
**155.000€ C.E.E= G**



**DURANGO**  
Guztiz berriztatua. Sukaldea, egongela, 2 logela eta komuna duxarekin. Bizitzen sartzeko moduan.  
**155.000€ C.E.E= F**



**DURANGO**  
Logela bakarreko atikoa. Sukalde-jangela eta komuna duxarekin. Igogailu handia. Bizitzen sartzeko moduan.  
**193.000 € C.E.E= E**



**JUAN DE OLAZARAN**  
90 m<sup>2</sup>. Erdi berria. 3 logela eta 2 komun. Terraza. Garajea eta trastelekua. Txoko komunitarioa.  
**370.000 € C.E.E= A**



**MIKELDI**  
85 m<sup>2</sup>. 3 logela eta 2 komun. 2 terraza. Ganbara.  
**210.000 € C.E.E= E**

## // ETXEBIZITZAK SALGAI

**DURANGO:** Erretentxu. 3 logela, sukaldea, komuna eta egongela. balkoia.  
**DURANGO:** Fray Juan de Zumarraga. 2 logela, sukaldea, komuna, egongela eta despentsa. Igogailua. Berriztatuko. Gas instalazioa. Ikuspegi ederrak.  
**DURANGO:** Askatasun etorbidea. 3 logela, sukaldea, egongela, eskegitokia eta 2 komun. Garajea eta ganbara.

## ABADIÑO

**ABADIÑO:** Etxeazpia. 3 logela eta 2 komun. Balkoia. Ganbara.

## BERRIZ

**BERRIZ:** 2 logela, egongela terrazarekin, sukaldea eta komuna. Garajea eta trastelekua.

**BERRIZ:** 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

**ATXONDO:** 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

## //LURSAILAK SALGAI

**TABIRA:** 1.445 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Laua.  
**IURRETA:** 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

## //BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**ABADIÑO:** Etxezurin kokatua. 300 m<sup>2</sup>. Berriztatuko. Lursailarekin. Ganbara.

**BERRIZ:** Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatuko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

**BERRIZ:** Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatuko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politikak.

**ATXONDO:** AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatuko. Kokapen izugarria

**MAÑARIA:** 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m<sup>2</sup> solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

**MENDATA:** Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatuko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

## //BULEGOAK ALOKAIUAN

**ABADIÑO**  
30 m<sup>2</sup>-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

## //GARAJE ITXIAK SALGAI

Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

## //LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

## //LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

**MATIENA:** 460m<sup>2</sup>-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

## www.inmoduranguesado.com



**DURANGO** 50 m<sup>2</sup>  
logela 1  
**FAUSTEBEKOA:** 50 m<sup>2</sup>, egongela, sukalde jantzia, logela eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du (mendebaldea). Zonalde lasaia, zonalde berdeetatik eta zerbitzuzunetatik gertu. Erdigunetik gertu. Garaje handia eta 7,5 m<sup>2</sup>-ko trastelekua.  
**189.000 € C.E.E: Bidean**



**DURANGO** 71,95 m<sup>2</sup>  
3 logela  
**MARTXOAREN 8KO:** 71,95 m<sup>2</sup>. Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-hegoaldea). Etxebizitza altua. Argitsua. Ikuspegi ederrak. Zonalde berdeak eta herriguneko sarrera/irteeratik gertu. 6 m<sup>2</sup>-ko trastelekua. 11,47 m<sup>2</sup>-ko garajea. Egoera onean.  
**239.000 € C.E.E: D**



**DURANGO** 85 m<sup>2</sup>  
3 logela  
**ERAIKUNTZA BERRIA:** 85 m<sup>2</sup>-tik aurrera. 3 logela. Lehenengo mailako materialak. Garajea eta trastelekua barne. Estreinatuko.  
**310.000 €-tik aurrera + BEZ**



**IURRETA** 64,4 m<sup>2</sup>  
3 logela  
**BIDEBARRIETA:** 64,4 m<sup>2</sup>, egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Balkoia. Etxe erdiak kanpora ematen du (iparraidea). Egoera onean baina hobekuntza bezatuz behar ditu. Leku onean kokatua, zonalde berdeetatik eta zerbitzuzunetatik gertu.  
**140.000 € C.E.E: E**



**MATIENA**  
**ERAIKUNTZA BERRIA:** 91,06 m<sup>2</sup>-tik aurrera. 4 logela. Kalitate oneko materialak. Garajea eta trastelekua barne. Estreinatuko.  
**280.000 €-tik aurrera + BEZ**



**ABADIÑO** 318 m<sup>2</sup>  
**GAZTELUA AUZOA:** Baserria. Behoko solairua, lehenengo solairua eta solairua estalkipean. Kotxetokia, 78 m<sup>2</sup> erabilgarri dituena. 15.317 m<sup>2</sup>-ko partzelan, laua, orientazio onekoa (eguzkitsua eta argitsua) eta bista ederrekoa. Egitura baldintza onetan. Barrualdea berriztatuko. Ingurune berdea eta lasaia. Abadiñotik 5 minutura eta Durangotik 10 minutura. **Familiabakarra egiteko aukera.**  
**440.000 € C.E.E: Bidean**

## //BERRIAK

**DURANGO/ KALEBARRIA:** 2 logela, egongela-sukaldea eta komuna. Igogailua. **195.000 € / E.E.Z=E**

## //DURANGO

**ANTSO ESTEGIZ:** 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta komuna. Trastelekua. Igogailua. **LEHEN 192.000 € ORAIN 175.000 € / E.E.Z=F**

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 320.000 € ORAIN 298.000 € / E.E.Z=E**

**ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, sukaldea eskegitokiargaz, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garaje itxia. **LEHEN 280.000€ ORAIN 250.000 € / E.E.Z=E**

**BARRENKALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. Berriztatuko. **LEHEN 150.000 € ORAIN 138.000 € / E.E.Z=G**

**BARRENKALEA:** Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

**JUAN DE OLAZARAN:** 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

**KOMENTU KALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. Ganbara. **187.000 € / E.E.Z=E**

**MONTORRETA KALEA:** 3 solairutako pabilioia 1.309 m<sup>2</sup> inguruko azalerarekin. **728.000 € / E.E.Z= SALBUETSITA.**

**SANTIKURUTZ KALEA:** Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m<sup>2</sup>-ko lurzorua. **LEHEN 550.000 € ORAIN 495.000 €**

## //BERRIZ

**MURGOITIO AUZOA:** Berreraikituko baserria lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € ORAIN 250.000€**

## //GARAI

**MOMOITIO AUZOA:** Etxebizitza eraikituko lursailak. Aukera ezberdinak.

## //IURRETA

**DANTZARI KALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **LEHEN 153.000 € ORAIN 146.000€/ E.E.Z=E**

## //IZURTZA

**ELIZALDE AUZOA:** 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **LEHEN 620.000€ ORAIN 570.000€/ E.E.Z=E**

## //OTXANDIO

**ZELAIETA AUZOA:** Baserria. 40.355 m<sup>2</sup>-ko lursaila. 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. **LEHEN 348.000€ /ORAIN 280.000€ E.E.Z=G**

## //ZALDIBAR

**BOLATOKI KALEA:** 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Igogailua. **130.000 € / E.E.Z=G**

## //GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO

Durango eta Iurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuarekin.

## //LOKALAK SALGAI / ALOKAGAI

Informazio gehiago bulegoan.

## Botikak

**BARIKUA, 26** · 09:00-09:00

MUGICA, ANDRA MARIA 9 - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL  
15 - ZORNOTZA

**ZAPATUA, 27** · 09:00-09:00

BALENCIAGA, EZKURDI  
PLAZA 8 - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-13:30

GAZTELUMENDI, J.A.  
ABASOLO 2 - DURANGO

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

ETXEARRIA, MONTEVIDEO  
ETORB. 2. - DURANGO

CAMPILLO, MONTEVIDEO  
ETORB. 24 - DURANGO

BAZAN, URIBARRI 5 - DURANGO

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

DE DIEGO, INTXAURRONGO  
22. - DURANGO

GOIRIA, SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

RUIZ, EL ALTO-BIDE ZAHAR  
14 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL  
15 - ZORNOTZA

FARMAZIA MATIENA,  
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

SANTAMARIA, ERREKAKALE 6. - ELORRIO

09:00-14:00

IRIGOIEN,  
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

**DOMEKA, 28** · 09:00-09:00

NAVARRO, ARTEKALEA 6 - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**ASTELEHENA, 29** · 09:00-09:00

ETXEARRIA,  
MONTEVIDEO ETORB. 2. - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**MARTITZENA, 30** · 09:00-09:00

SARRIA, SASIKOA 17 - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

**EGUAZTENA, 31** · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA,  
MURUETATORRE 2C - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL  
15 - ZORNOTZA

SARASKETA,  
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

**EGUENA, 1** · 09:00-09:00

CAMPILLO,  
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

MELERO, SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,  
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,  
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, LUIS URRENGOETXEA  
5 - ZORNOTZA

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



**Zorionak guztioi!**

**GOZATU GOZOTEGIA**

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
661 40 14 00  
gozatudurango@gmail.com  
Gozatu Gozotegia  
gozatugozotegia



**Bego Kapelastegik** urteak egiten ditu urtarrilaren 26an. Zorionak, Bego, Elorrixoko lagunerekin partez.



Zorionak, maitia! Ederto pasatu zure eguna. Askok maite zaitugu!



Urtarrilaren 27an **Beñatek**, gure lehengusu nagusienak, 9 urte egiten ditu. Zorionak eta ondo pasa egune. Musu bat familia osoarekin partez.



Zorionak, **Markel** eta **Jone!** Bizitzako lehenengo hamarkada bete doazue. Ixen zoriontsu, bikote!

## Eguraldia

ZAPATUA ↓ 7° / 19° ☁

ASTELEHENA ↓ 9° / 18° ☁

EGUAZTENA ↓ 7° / 16° ☁

DOMEKA ↓ 9° / 19° ☁

MARTITZENA ↓ 9° / 17° ☁

EGUENA ↓ 7° / 13° ☁

# AGORA

**ezagutzaren plaza**

## EMAKUMEEN OSASUNA, BIKINI MEDIKUNTZATIK HARATAGO

**Urtarrilak 30** ⌚ 18:30

Hizkuntza: gaztelania  
Hizlaria: Lucía Gallego Andrés



*Bitartekaria:*



Adituak azalduko digu nola medikuntza konbentzionalak ez dituen kontuan hartu genero eta sexufaktoreak gaixotasunen pronostikoan. Emakumeentzako medikuntza sexu- eta ugalketa-organoentzentratu da batez ere. Bikini medikuntza esaten zaio horri. Horrek kalte larriak eragin dizkio emakumeen osasunari, adibidez, infradiagnostikoa gizonena ez den sintomatologia duten gaixotasunetan edo gaixotasunen nahastea.

*Antolatzailea:*



# "Pasodobleak, balsak eta halakoak jotzetik erreperitorio zabalagoa eta erakargarriagoa izatera pasatu gara"

Josu Otxotorena eta Lorena Rodriguez Durangoko Tabira Musika Bandako kide dira



**Josu Otxotorena Zabalza**

Tabira Musika Bandako presidentea

IRUÑEA | 1961

**Lorena Rodriguez Ahedo**

Tabira Musika Bandako zuzendariordea

DURANGO | 1976

## DURANGO • AITZIBER BASAURI

Tabira Musika Bandan 25 kide dira gaur egun. Kiderik gazteenak 16 urte ditu, eta nagusienak ia 80. Josu eta Lorena dira horietariko bi. Josuk tronoa, gitarra, saxofoia eta bombardinoak jotzen ditu. Lorenak klarineta eta pianoa. Inauterietako Surrandiekkin dute hurrengo hitzordua. Oso giro polita sortzen dela esan dute.

## Durangoko Tabira Musika Bandak ibilbide luzea du.

**Josu Otxotorena:** 1995ean musika banda elkarte bihurtu zen, eta jarduteko beste era bati ekin zitzaion. Baina aurretik ere ibilbide luzea zuen egina. Baditugu argazkiak 1880 ingurukoak, Bartolome Ertzila zuzendari zela.

## Zenbat urte daramatzazue Tabiran?

**Lorena Rodriguez:** 1989an hasi nintzen, 13 urtegeaz, aitagaz. 10 bat urte egin nituen bertan, Eibarko bandara joan ginen arte. 12-13 urte dira barrero Tabira Musika Bandan hasi nintzela.

**J.O.:** Durangora etorri nintzenetik, 20 urte. Musika oso errotuta egon da gure familian. Anaietariko bat musika irakaslea da eta semeagaz Iruñeko La Pamplonesan jotzen du; beste anaiak saxofoi ikasketak ditu. Aitak, bestalde, eskusoinua jotzen zuen, autodidakta zen. Ni neu ere bai.

## Bandak bilakaera handia izan du?

**J.O.:** Geroago eta gazte gehiago dago, gutxi diren arren, eta kudeaketa ere aldatu egin da. Gainera,

hainbat zuzendari izan dugu eta bakoitzak bere estiloa eta zuzentzeko modua ekarri ditu; baita bere erreperitorio ere. Alde horretatik ere bilakaera handia izan da. Pasodobleak, balsak, zarzuelak eta halakoak jotzetik, erreperitorio zabalagoa eta askoz ere erakargarriagoa izatera pasatu gara.

**L.R.:** Musika banden funtzioa aldatu egin da. Lehen, dantzarako musika jotzea zen helburua; ondo pasatzeko modu bakarra zen eta zuzendariek garrantzi handia zuen. Orain ez dira beharrezkoak eta ez dira dantzatzeko musikara mugatzen.

**J.O.:** Egungo banda ez da Ezkurdiko kioskoan sartzen. Instrumentuak aldatu egin dira; tinbalak eta bonboak, adibidez, askoz ere handia-

goak dira, eta musika tresna berriak sartu dira: xilofonoa, fagota, laminak, bateria... Bakoitzak bere ekarpena eginez, soinua borobiltzen dute.

## Zelan ikusten duzue bandaren etorkizuna?

**J.O.:** Elkarrean etorkizuna nahiko ilun ikusten dut orokorrean. **L.R.:** Geroago eta okupatuago gaudu, indibidualistagoak gara. Eta umeez dena behingoan gura dute, momentuan bertan. Musikan hori ezinezkoa da. Gainera, ahalegin bat eskatuz gero utzi egiten dute. Ez denek, baina badago horretarako joera bat. Hala ere, ez naiz hain ezkorra.

**Hainbat zuzendari izan dugu eta bakoitzak bere estiloa eta zuzentzeko modua ekarri ditu; baita bere erreperitorio ere**

**J.O.:** Gazteek entzuten duten musika ez du zerikusirik bandan jotzen denagaz. Teknologia berriekin ez da musikaririk behar, gainera. Gatx da gazteak erakartzea, baina eutsi egingo diogu, ateak zabalik.

## Lorena, zelakoa da zuzendari lana?

**L.R.:** Oso sentsazio polita da denok batera jotzea, eta kasu egiten dituztenean ezin hobeto doa. Asko disfrutatzen dut kontzertua, baina egun hori heldu arte txarto pasatzen dut, lan handia eskatzen du.

## Bereziki gogoan duzuen kontzerturen bat?

**J.O.:** Andres Granadosen oroimeenez emandakoa. Jaietan txupinero izan ginenekoa ere gogoan dut.

**L.R.:** Bartolome Ertzillaren omenez Vanesa Goikotxeagaz eta Andeka Gorrotxategigaz emandakoa gehituko nuke. Pandemiaren ondorengo Surrandien lehenengo kalejira ere magikoa izan zen.

## Lau-hortza

Markel Sanchez Zelaia Behargina



## Esajerazioaren alde

Harkaitz Canori irakurri nion gauza logikoa dela batzuetan errealitateak fikzioa gainditzea. Izan ere, fikzioak sinesgarria izan behar du hartzailearentzat, errealitatearen antza eduki behar du; errealitateak, ostera, ez dauka betebeharrori.

Ados nago. Horregatik ezin dut ulertu gizarteak zergatik arbuatzen eta salatzen dituen pertsona batzuk, soilik euren gauzak kontatzeko moduagatik: esajeratuak. Arazoa da jende askok esajerazioa lotzen duela gehiegikeria, harrokeria, ahoberokeria eta beste keria batzuekin. Ipuinak eta gezurak nahasten dituen jende berbera da, magoei trukoak harrrapatu guran ibiltzen direnak.

Esajerazioak errealitate gehiago dakar ifrentzuan errealitateak berak baino. Esajeratzea errealitatea areagotuta ematea da, azpimarra egitea, zerbait miretsi eta besteei eskaintzea. Kontrara, errealitatea gertatu den moduan lau eta apal kontatzea errealitatearen erreplika merke bat besterik ez da, originalaren berdina berdina izango ez den fotokopia bat, famatu bat argizari museoan ikustea.

Esajerazio eza asperdura da. Egin kontu: barregura, maite-mina, lilura, plazera eta aztoramena eguneroko bizitzaren esajerazioak baino ez dira.

Esajeratuak dira errealitatea eta bizitzaren arteko bitartekariak. Esajerazioa poesiaren demokratizazioa da. Esajeratzea da egia esateko modu bakarra, norbere egia. Beste guztia diskurtsoak errepikatzea da. Utzi gauzak diren moduan kontatzeari, gauzak aldatu gura baditugu behintzat. Soilik esajeratuok salba dezakegulako mundu triste hau.

**ESKELAK/ URTEURRENAK/  
OROIGARRIAK/ ESKER ONAK  
ANBOTON**

**75€**

• Ehorztetxearen bitartez

• Anbotoren bitartez:

946 816 558 · [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org)

[anboto.org/eskelak](http://anboto.org/eskelak)

Anbotokideek deskontua izango dute.

